



■ TXANTXILLAKO FESTAK

Arimak berpizteko moduko festak

Goizeko 09:00etan esnatuko dituzte auzotarrak txistulariek. Hortik aurrera, ez da deskantsurako tarterik izango!

HILERRIA izan zen Txantxilla, aspaldi. Hori horrela, azaroaren 1aren aurretik, auzoko festak antolatu dituzte, bigarren urtez. Denetarako tar-tea izango da gaurkoan: musika, haur eta helduen krossa, Karmen Etxeberriari omenaldia, sagardo eta pintxo dastaketa, herri bazkaria, txokolatada, arimen kalejira, sahieski jatea... /4-5

**ordu
aldaketa
goizaldean**



3:00 → 2:00

■ EREÑOTZU

Umeentzako ikuskizuna eta eskalada, gaur

Umeentzako Zirko loretsua emanaldia izango da gaur 11:30etan eta ondoren, eskalada saioa, denentzat. /8

■ ASTIGARRAGA

Ate irekiak, Petritegin

Sagardoa nola egiten den ikusteko aukera bihar, Petritegin. /9

■ ARANO

Maria Juana Huizik 100 urte bete ditu

Asteazkenean bete zituen 100 urte Maria Juana Huizi aranoarrak. Egun, Bartzelonan bizi da. /15

■ GOIZUETA

Olaizola, lau t'erdian

Olaizola Ilak Bengoetxea Vlaren aurka jokatu du gaur. /14

GAUR KRONIKAN

Hernani /2-7

Bollorioa, Jasota Bezala, autobusak, PSE-EE, kirolak...

Ereñotzu /8

Luis Mari Zalduari elkarriketa

Astigarraga /9-13

Tranbiako obrak, autobusak, laburrak, kirolak, Ana Vitoria...

Goizueta /14-15

Pilota, jubilatutak, euskara...

Arano /15



Modaz gainezka atzo, Atsegindegi

OINETAKOAK, betaurrekoak, galtzak eta kamixetak, jostailuak, haurrentzako koteak, aterkiak eta poltsak, zapiak eta txapelak, kazadorak eta berokiak... Zer zen atzo, pasarelan ez zegoena?

Hernaniko Berriak elkarteko dendetan aurkitu daitekeen punta-puntako moda ezagutzeko aukera izan zen atzo, eta modelo hernaniarrek ederki erakutsi zuten herrian badela estiloa nahikoa!

Begiratzera, eta udazken-neguko modarik berriena ezagutzera gerturatu zen jendeak lepo bete zuen Atsegindegi. Ondo ikusteko aukerarik gabe ere gelditu ziren asko. Laster, Kronikan, moda guztia. ||

cenor BALANTXA
ELEKTROGAILUAK

Behar dituzun
elektrogailu
guztiak ditugu!!

NAGUSIA,17
943 33 40 22

**HERNANI VISA
TXARTELAREKIN
%5eko DESKONTUA!**

3 hilabetetan
ordaintzeko aukera
ERREKARGURIK GABE

• Bisita gidatuak
• Ostiraletik Igandera,
11:00etatik aurrera, pintxoak,
razioak eta menuak
• Jangelan edo terrazan

IPARRAGIRRE
TOLARE SAGAROTEGIA

sagardo **gunea**

Osifraga auzoa, 10 Hernani
www.iparragirre.com

943 55 03 28 // 943 33 73 70

■ EZKONTZA HERRIKOI FEMINISTA

«Maitasun eredu ezberdinak ikustaraztea du helburu ezkontza herriko feministak honek»

Bi lagun arteko 'ezkontza' ospatuko da gaur Atsegindeginean. Bollorria deitu diote. Edo Ezkontza Herriko Feminista. Izan ere, «maitatzeko mila modu» daudela aldarrikatu nahi dute. Egun osoko festa izango da.

HERRIAN barrena hasiko da festa, kalejiran. Segidan, bazkaria egingo da Atsegindeginean, eta ondoren, zeremonia. Arratsaldean kontzertuak izango dira. Antolatzaileen esanetan, festa irekia da: «gure ideiekin bat egiten duen edonor ongi

etorria izango da».

Erritual propioa

«Bollorria ospatuko dugu: ohiko ezkontza bat izatetik haratago, maitasun eredu ezberdinak ikustaraztea helburu duen errituala izango da. Bi

lagunen arteko ezkontza baino gehiago da: maitatzeko mila modu daudela aldarrikatu eta hauek ospatzeko beste hainbeste erritual egon daitezkeela ikusarazteko modua da. Maitasun iraultzaile eta anitzak aldarrikatzea, eta gure erritual

propioak asmatu eta ospatzea da helburua», azaldu dute.

Egun osoko festa

Eguerdiko 12:00ak aldera hasiko da festa; Karboneratik abiatuta, brindisa eta trikipotea egingo dituzte. 14:00etan

bazkaria egingo da Atsegindeginean (izen ematea itxita dago), eta kafe garaian, 16:00ak inguruan, zeremonia egingo da. 18:00etatik aurrera, kontzertuak izango dira: Kaxianoren Alabak, Pottors ta Klito, Dj Gurebesta eta beste hainbat. ■

■ ANTZERKIA

Haurrentzako ikuskizuna, gaur

Goizeko 11:00etan hasita, bost urtetik gorako umeei zuzendutako antzerkia izango da gaur Biterin: *Antzokiko istorioak*. Hiru ipuin ezagun kontatuko dira bertan, eta aldi berean, antzeztu egingo dira. 'Jakin' izeneko pertsonaiak kontatu egingo ditu ipuinak, eta 'Jolas'-ek, berriz, antzeztu egingo ditu, modu dibertigarrian. ■

■ ZINEA

'Lasa eta Zabala' eta 'Maya erlea'

Bi pelikula ikusteko aukera izango da Biterin asteburuan. Gaur eta bihar, *Maya erlea* jarriko dute haurrentzat, 16:30etan. *Lasa eta Zabala*, berriz, 19:30etan eta 22:30etan ikusi ahal izango da gaur, eta 22:30etan, bihar. Era berean, astelehenean berriro jarriko dute, ikuslearen eguneko prezioan: 2,50 euro. ■

■ ODOL EMAILEAK

Omenaldia bihar, odol-emaileei

Urtero omenaldia egiten zaie 25, 40, 50 edo 50 alditan baino gehiagotan odola eman dutenei. Aurten, gainera, Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteak 50 urte betetzen ditu. Guztia ospatzeko, bazkaria egingo dute bihar, 14:00etan, Urrietako Oianumen. Dominak 13:30etan banatuko dizkiete, tartean 27 hernaniarri. ■

■ PSE-EE



Asteartean Hernaniko alderdikideekin izan ziren Denis Itxaso eta Julio Astudillo.

«Herriz herri osatuko dugu programa»

Herri barruko autobusak, Txillida-Leku, bidegorriak eta zaharren egoitza izango dituzte kontuan, Hernanin.

FORU hauteskundeei begira lanean ari da PSE-EE alderdia, eta asteartean Hernaniko alderdikideekin elkartu ziren Julio Astudillo, hauteskunde programaren koordinatzailea, eta Denis Itxaso, hautagaia.

Astudillok azaldu zuen garrantzia eman nahi diotela hauteskunde programa eratzeari: «Herriz herri osatuko dugu programa. Alderdia eta herriaren arteko konexiorako elementua izatea nahi dugu». Horregatik, Denis Itxasok azaldu zuen Hernaniko alderdikideen bitartez, Hernaniren beharrak aztertu dituztela.

«Hernaniko kezkak kontuan hartuko dira Aldundian»

Denis Itxasok azaldukoaren arabera, Hernanik dituen lau behar konkretu izango ditu kontuan Aldundiak.

«Herri barruko garraio publikoa hobetu behar da, Florida,

Etxeberri eta Sagastialde ez direlako kontuan hartzen».

Era berean, «Andoain eta Donostia arteko bidegorria bultzatu behar» da.

Bestalde, «Txillida Leku erakargarritasun kultural haundikoa» dela azaldu zuen, eta horregatik, Aldundiak museoa berriro irekitzeko negoziaketan parte hartzea beharrezko dela.

Azkenik, zaharren egoitzak kudeatzeko PSE-EEK eta Aldundiak lortutako hitzarmenaren bitartez, Kabiak Hernaniko zaharren egoitza kudeatuko duela azpimarratu zuen. «Hernaniko Udalak milioi bat euro aurreztuko ditu».

«Bilduk zakarrontzira botako ditu 265.912 euro»

Bestalde, prentsa oharrean, PSE-EEK azaldu du Eduardo Txillida pasealekuko obrarako 265.912 euro bideratuko dituela Bilduk. «Kapritxoa da». ■

🔗 JASOTA BEZALA

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak.

Haur txikientzako espazio egokiaren bila

Duela aste batzuk hasi ginen elkartzen guraso talde bat, Hernanin 0-5 urte bitarteko haurrei begirako eskaintzan dagoen gabezia ikusita.

Euskal Herriko klima eza-gututa, haurrek, udazkenetik udaberrira ezin izaten dituzte kaleko espazioak erabili. Euskaraz sozializatzeko beste gune bat bilatzea da gure asmoa eta emozionalki berriz, sostengu bat izan daitekeena

gurasoentzat.

Familia asko merkatal guneetara joaten dira arratsalde pasa. Momentu puntual batzuetan erabil daiteke aukera hau, baina egunerokotasunerako ez dugu uste eredurik egokiena denik.

Haur txikiaren kasuan berriz, lurrean lasaitasunez beren gorputza ezagutzeko espaziorik ez dute izaten; ondorioz, etxeko espaziora mugatu behar dute.

Gure eskaera gurasook geure artean elkartu eta hau-

rentzako egokia den espazio bat izateko aukera da. Haurrei egokitutako lokal bat.

Proiektu hau herriko gurasoen beharrei erantzunez jaio denez, honen gestioaren ardurara herriko gurasook hartuko dugu gure proiektua aurrera eramanez ahal izateko.

Horretarako, udalari gure proiektua aurkeztu eta sinadurara bilketa bat jarriko dugu martxan.

Itziar Arruarte Santa Kruz eta Argitxu Martinez

Karabeleko

SANTU GUZTIEN EGUNA

Zeure lore zentroa zeuk osatu nahi?

Landare bizia solgai gure etxaldean!

Eskaintza

Hirugarren landarearen prezio ordian!

www.karabeleko.org

688 532 646 · Portu Auzoa 34 · Hernani

I AUTOBUS ZERBITZUA HOBETZEN

Zerbitzua haundituko da ostiral gauetan

Zazpi linea eta gaueko zerbitzua pasako dira Hernanitik. Horrez gain, beste lau lineak geltokia izango dute Galarretan edo Martindegin.

FORU Aldundiak aste honetan aurkeztu ditu, Hernanin, autobus zerbitzuan 2015ean egingo diren berrikuntzak.

Floridan, geltokia

Hernanitik Donostiara Astigarraga eta Martutenen barrena dihoan zerbitzuak Floridan izango du lehenengo geltokia. Era berean, maizago pasako da. Martindegin autobia hartu eta zuzenean Donostiara dihoan linea, berriz, orduerdiro pasako da.

Aldaketa nabarmena izango du, baita ere, Aieten barrena pasatzen den autobusak: orduan 3 pasako dira, eta ez 4.

Antiguora dihoana, berriz, maizago pasako da.

Azkenik, Ereñotzura dihoan zerbitzua haunditu egingo da: egunean 13 autobus.

Ospitaleetara dihoan linea, berriz, orduro pasako da Hernanitik, eta Lasarte eta Usurbilera dihoana, orduerdiro. Gainera, Kiroldegia izango da aurreneko geltokia.

Gaueko zerbitzua, indartua

Ostiraleko gaueko zerbitzua 01:00ak arte luzatuko da ostiraletan, Donostiara dihoazten lineatan: zuzenekoan, Martutenen barrenakoan, Aieten barrenakoan, eta Antiguotik pasatzen denean. Era berean, Andoain eta Donostia arteko lineak larunbat gauean orduro emango du zerbitzua. II

L41 LINEA: Usurbil-Lasarte-Hernani

Astez: Hernanitik orduerdiro, 6:57etan hasi eta 23:27ak arte. 5:57etan ere, izango da zerbitzu bat.

Larunbatetan: Hernanitik orduerdiro, 7:57etan hasi eta 23:57ak arte. 00:57etan ere, izango da zerbitzu bat.

Igande eta jaiegunetan: 10 irteera

Geltokiak: Kiroldegia, Marieluts, Sorgintxulo, Jauregi eta Errekaldeko gasolinera.

L51 LINEA: Hernani-Donostia (Martutenen barrena)

Astez: Hernanitik orduerdiro. Orduerdiro, ondorengo ordutegian: 05:45 eta 7:15 bitartean; 10:45 eta 13:15 bitartean; 16:45 eta 23:15 bitartean. Horrez gain, zerbitzu hauek izango dira: 07:25, 07:45, 08:14, 08:43, 8:54, 9:15, 9:43, 9:55, 10:22, 13:40, 14:10, 14:40, 15:02, 15:24, 15:45, 16:10.

Larunbatetan: Hernanitik orduerdiro, 16:45 eta 23:15 bitartean. Gainerako zerbitzuak: 07:45, 08:14, 08:43, 08:54, 09:15, 09:43, 09:55, 10:22, 10:45, 11:15, 11:45, 12:15, 12:45, 13:15, 13:40, 14:10, 14:40, 15:02, 15:24, 15:45, 16:10.

*Ostiraletan zerbitzua 01:00ak arte izango da. 22:00etatik aurrera, ordubetero.

Igande eta jaiegunetan: 58 irteera 08:00etatik 22:00etara.

Geltokiak: Florida, Elkano, Txirrita, Zinkoenea, Akarregi (2), Martindegi.

L52 LINEA: Hernani-Donostia (Zuzeneko)

Astez: Hernanitik orduerdiro.

06:00-22:00 bitartean.

*Ostiraletan zerbitzua 01:00ak arte izango da. 22:00etatik aurrera, ordubetero.

Larunbatetan: Hernanitik orduerdiro.

08:00-22:00 bitartean.

Igande eta jaiegunetan: 56 irteera.

Geltokiak: Txirrita, Zinkoenea, Akarregi (2) eta Martindegi.

L53 LINEA: Hernani-Donostia (Aiete)

Astez: Hernanitik 20 minuturo.

06:00-22:00 bitartean.

*Ostiraletan zerbitzua 01:00ak arte izango da. 22:00etatik aurrera, ordubetero.

Larunbatetan: Hernanitik 20 minuturo.

07:00-22:00 bitartean.

Igande eta jaiegunetan: 72 irteera.

Geltokiak: Txirrita, Zinkoenea, Akarregi (2) eta Martindegi.

E.Z. LINEA: Hernani-Pikoaga**HERNANITIK:**

Astez: 05:45, 07:25, 08:25, 09:50, 11:25, 12:25, 14:05, 15:05, 16:05, 17:45, 19:45, 20:45 eta 21:45.

Larunbata, igande eta jaiegunetan: 07:25, 08:25, 10:25, 11:25, 12:25, 14:05, 15:05, 16:05, 17:45, 19:45, 20:45, 21:45.

Geltokiak: Hernani fabrika, Pikoaga, Latxe, Ereñotzu, Fagollaga eta Epele.

PIKOAGATIK:

Astez: 06:05, 07:45, 08:45, 10:10, 11:45, 12:45, 14:25, 15:25, 16:25, 18:05,

20:05 eta 21:05.

Larunbata, igande eta jaiegunetan: 07:40, 08:40, 10:40, 11:40, 12:40, 14:20, 15:20, 16:20, 18:00, 20:00, 21:00 eta 22:00.

Geltokiak: Txirrita, Karabel, Zikuñaga, Epele, Fagollaga eta Ereñotzu.

L61 LINEA: Andoain, Urnieta, Hernani, Donostia**DONOSTIARA:**

Astez: Orduerdi, ordulauden eta ordulaudeneko tartearekin aterako dira, orden horretan. 06:28 eta 23:24 bitartean.

*Ostiraletan zerbitzua 01:00ak arte izango da. 22:00etatik aurrera, ordubetero.

Larunbatetan: Ia gehienetan, ordulauden, ordulauden eta orduerdiko tartearekin izango dira.

Geltokiak: Santa Barbara, Axala, Elkano, Txantxilla, Karobieta, Marieluts eta Sorgintxulo bidea, Jauregi (2).

ANDOAIN:

Astez: Orduerdi, ordulauden eta ordulaudeneko tartearekin aterako dira, orden horretan. 08:37-23:07 bitartean. 07:22 eta 07:52etan ere izango da zerbitzua.

*Ostiraletan zerbitzua 01:00ak arte izango da. 22:00etatik aurrera, ordubetero.

Larunbatetan: Ia gehienetan, ordulauden, ordulauden eta orduerdiko tartearekin izango dira.

Geltokiak: Rekalde, Jauregi, Galarreta, Sorgintxulo, Marieluts, Antziola, Elkano, Urbietara (2), Txantxilla eta Santa Barbara.

L62 LINEA: Andoain, Urnieta, Hernani, Ospitaleak, Amara**DONOSTIARA:**

Astez: Ordubetero, 06:15 eta 21:15 bitartean.

Larunbatetan: Ordubetero, 08:15-21:15 bitartean.

Geltokiak: Santa Barbara, Elkano, Txantxilla, Karobieta, Marieluts eta Sorgintxulo bidea, Galarreta.

ANDOAIN:

Astez: Ordubetero, 06:00 eta 22:00 bitartean.

Larunbatetan: Ordubetero, 08:00-22:00 bitartean.

Geltokiak: Galarreta, Sorgintxulo, Marieluts, Kiroldegia (Latsunbe-Elkano ixkinean), Urbietara, Txantxilla, Santa Barbara.

LINEA: Andoain, Hernani, Donostia (Gauekoa)**DONOSTIARA:**

Larunbatetan: Ordubetero, 00:23 eta 06:23 bitartean.

Geltokiak: Santa Barbara, Sandiusterri, Zinkoenea, Akarregi (2), Martindegi.

ANDOAIN:

Larunbateta: Ordubetero, 01:01 eta 07:01 bitartean.

Geltokiak: Martindegi, Akarregi (2), Zinkoenea, Elkano, Txantxilla, Santa Barbara.

4 lineak, geltokia Hernanin:

Astigarraga-Unibertsitatea (Martindegin)

Lasarte-Ospitaleak-Donostia (Galarretan)

Usurbil-Zubieta (Galarretan)

Aginaga-Usurbil-Ospitaleak (Galarretan)

ESKAINTZA
%20a

Beherapena
MONTURA
GUZTIETAN

R.P.S. 17405

biokbi
optika

Antziola, 14
Tel.: 943 33 68 86

Alejandra Aizabar
Optikoa, Oplometria,
12. 244 zuz.

UMEENTZAT ERE, ESKOLARA BUELTA!
%20a

Beherapena
MONTURA
GUZTIETAN

Etor zaitez gure graduatutako betaurrekoen kolekziope ikustera: Spiderman, Lulu, Ray Ban eta Arnette. Eta betaurreko oso baten erosketarekin Buena Vista kapitainaren ipuin bat lortuko duzu!

ZATOZ ETA AUKERA EZAZU
GUSTUKOENA

URRIAREN 10etik
AZAROAREN 15era

*Promoio hau egin zaio gehitu Berrak txarbelaren deskontuari.
Krisal antireflijatzen berrak osoa egin.

los puros
capitán
BUENA VISTA

■ KARMEN ETXEBERRIA URREAGA TXANTXILLAKO JAIETAKO OMENDUA

«Izebak bandera espainola jarri zuelako salbatu zitzaigun gerran Laubidieta»

Txantxillako jai batzordeak omenaldia egingo dio gaur Karmen Etxeberria Laubidietako alabari. 81 urtez etxe hartan bizi izan zen eta ondo daki inguruak jasandako aldaketek: «hau toki arlotea zen, ez baserriko ez kaleko». Egun, urbanizazio erosoan paseatzen du ahal duenean, eta haurren algarak entzuten ditu parke bihurtutako iraganeko baratzen.

URKO APAOLAZA AVILA

LAUBIDIETA zegoen tokia etxe-ko leihotik ikusten du orain Karmen Etxeberriak. Hantxe pasa du ia bizitza osoa, urbanizazio berria egiteko bota zuten arte. Ama Santa Barbarako Eguzkitza baserrikoa zuen, aita Zestoatik etorria. Ezkondu zirenean Laubidietako eraikina oraindik ez zegoen bukatuta eta Kale Nagusian jarri ziren bizitzeko aldi baterako. Karmen alaba zaharrena Kale Nagusiko etxean jaio zen 1927an, baina hamabost egunen buruan Laubidietara aldatu ziren giltzak eskuan. Gainerako bost anai-arrebak Laubidietan sortu ziren, baita Karmenen seme-alaba guztiak ere, ohe berean: «a zer artalde!», esan digu umoretsu.

Etxe berezia zen Laubidieta, terraza horiekin.

Ederra zen, Ilaramendi kontratistak egin zuen. Sei bizitza zituen eta eskailera kanpotik zeukan, terrazatik terrazara. Hasieran ez zegoen ikuilurik, guk hiru sagardo barrika edukitzen genituen hor, nahikoa urtea pasatzeko. Lopetegik ganadua jarri nahi zuela eta frailiatarrek ere bai... ukiulu bihurtu zuten azkenerako. Gero etxeari puska bat jarri zioten beheran, harrobiko langile batentzako, Barcenilla barrenadorea. Baratzak aparte genituen, gure aita lan asko egin zen hor.

Eta ingurua, nolakoa zen?

Karreteraren beste aldean soro haundi bat zegoen txabola batekin, olanotarrena. Dena

soraa zen hemen, berde-berdea. Etxerik apenas: auzoa egiteko bota duten Axala zaharra edo Arrigoian-berri, Marieluts-berri, Arantzazu etxea... Oraindik zutik dago garai hartako bat: Gure Kabiya. Hasieran Villa Trinidad izena zuen, bertako andreak ere hala izena zuelako. Santa Barbara mendi ederra zen, pinudi ikaragarri bat zuen eta hor jolas-ten ginen gorde-gordeketan. Arrigoain baserri haundia ere hor zegoen, gero harrobia egiteko bota zuten.

Harrobian dinamita sartzen zutenean sumatuko zenuten...

Bai, behin gure etxe pareko soroan harri batek zaldia jo eta hura ere hil zuen. Etxeak berak puska bat zeukan zintzilik txupinazo horietako batek jo ziolako. Terrazako leihok ere dar-dar egiten zuten, ez ziren gaur bezalakoak, baina niretzako eleganteak ziren. Guk beti egin izan dugu bizimodua hor, udara terrazan eta negua sukaldean.

Bizimodu gogorra zen?

Pentsa! Zenbat aldiz ez ote ginen joan ur bila. Bi lagun artean hartzen genuen esku banarekin barrefiua eta beste eskuarekin baldea; halaxe joaten ginen Leokara edo Bakerora. Gero herrian ura jarri zuten eta etxe gaineko depositoa betetzen genuen, hura bai adelantoa.

Zu haurra zinela zirkuituko errepidea egin berria zen, baina kotxerik pasatzen al zen?

Keba! Gu karreteran jolasten ginen saltoka eta txingoka.



Karmen Etxeberriak ondo gogoratzen ditu Laubidieta etxean pasatako urte guztiak.

«Ederra zen Laubidieta: sei bizitza zituen eta eskailera kanpotik, terrazatik terrazara. Inguruan, dena soraa zen hemen, berde-berdea; etxerik apenas»

Halako batean «automobila!» esaten zuen norbaitek, bazter-tzen ginen eta gero berriz jolastera; ordubeteen kotxe bat edo bi pasako ziren. Gurdiak bai, horiek gehiago ibiltzen ziren, Iñistorretara joateko.

Kotxe karrerak ikusteko toki pribilegiatua zenuten.

Makina bat ikusi izan ditut. Jendea ere piloa igotzen zen gure terrazara. Kanpokoak etortzen ziren karrerak egitera, haietako biren izenaz akorda-

tzen naiz: (Louis) Chiron eta (Tazio) Nuvolari; Lasarten barre-na egiten zuten buelta. Laubidietatik Santa Barbara aldera zubia jarri zuten, egurrezko pasadizoa, eta Axalatik Potrokilloren aldera ere bai; hantxe egoten zen jendea begira.

Ordurako kanposanturik ez zegoen Txantxillan, baina futbol zelairik oraindik ere ez. Zer zegoen?

Ezer ez. Bagenekien kanposantua izan zela, baina handik

eraman egin zituzten eta ez zen ezer geratu, toki arlote bat. Gero futbol kanpoa egin eta Txantxilla jarri zioten izena.

Txantxilla ez al zitzaion ba inguru guztiari deitzen?

Txantxilla toki horri baino ez genion deitzen, gainerakoa Laubidieta edo Cuatrocaminos zen. Baina hau ez zen barrio bat, etxeari deitzen zitzaion horrela.

Eskolara nora joaten zineten?

Lehenengo Portalez Kanpora, señoita Present eta señoita Agustinarekin. Gero Biterira, eta han *Cara al Sol* kantatu behar izaten genuen egunero.

Gerrak bete-betean harrapatu zintuen.

Adarratik Santa Barbarara iza-

ten zuten metraila eta ikamika. Aireplanoak bi txandatan etortzen ziren eta behin bonba bota zuten Villa Milagroserako bidean (Kerejetaren etxea). Hura lehertzean sekulakoa izan zen, kristalak eta guzti puskatu zizkiguten. Gu bodegara jaisten ginen eta Gure Kabiakoak ere etortzen ziren, Laubidieta zokoagoan zegoen, agidanean. Beheko bizitzako sualdean tranpa egin zuten, eskailera jarri eta horrela jaisten ginen bodegara, kanpora atera behar izan gabe; hortxe egoten ginen erre-zatzen. Azkenean joan egin behar izan genuen, egun gutxitarako baina.

Nora joan zineten?

Azkoitira joan ginen, gure aitak arreba bat zuen han. Hala geundela, autobus bat iritsi zen hemengo jendearekin eta batek esaten dio amari: «Bai neska, Eguzkitza erre ditene eta Haritzola ere erre ditene!». Gure etxearekin zer pasatuko ote zen beldurrez geunden eta itzuli ginenean Laubidieta osorik zegoela ikusi genuen. Gure aitona, Eguzkitzako, etorri omen zen.

«Begien aurrean daukat nola pasa ziren gorputzak etzanda eta burua gurditik zintzilik, fusilatu eta gero»

«80 urtez hor bizitzen eta sekula festarik aitatu ez. Ene... ez zegok gure aita begira!»

Zeinek erre zien Eguzkitza zuen aiton-amonei?

Erreketek ziren hemen triunfanteak, haien kontra zeinek egin? Aitona Laubidietara etorri zen eta esan zien «aquí vivo yo». Izeba jostuna ere bagenuen eta hark bandera espainola jarri zuen terrazan. Holaxe salbatu zitzaigun etxea.

Esan izan da Galarretan fusilatzen zituztenak Laubidietan barrena eramaten zituztela hilerrira. Zerbait ba al dakizu horretaz? Cuesta de la Muertetik eta gure etxetik sartzen ziren gurdian. Ni ezagututa nago hori, baina

barrenera bidaltzen ziguten gurasoek. Haiek terrazan. Egurdiko denboran izaten zen, ordubiak edo ordu bata eta erdiak aldera, bazkalondorantz jende gutxi nonbait, orduan pasatzen zituzten. Eta nik gogoan daukat gurdian pasa zirela eta (gorputzak) etzanda eta burua gurditik zintzilik. Hori begien aurrean daukat. Ez naiz ahaztuko. Gure aita-eta terrazan, eta gu ezkutuan zokoan jartzen ginen, ikusi egin nahi. Konturatzen zirenean «segi hemendik barrena!» esaten ziguten. Hola pasatzen ziren hiru-lau gudi. Nik gogoa daukat bai, emakumea edo gizasemea edo fraidea, ez dakit zer zen.

Baratza eta soro artean bizi zineten, goserik pasa al zenuten gerraostean?

Ni ez naiz akordatzeko goserik pasa genuenik. Baserrian ere familia genuen eta amona gaxoak babarruna edo patata ematen zigun beti; taloa ere asko jaten genuen eta esnea ere handik ekartzen ziguten.

Herrian ez zen giro izango... Aita errepublikarra zen eta



Itxura ederra zuen Laubidieta etxeak, terraza haundiekin.

falangez jantzita edukitzen zuten talde haundi batekin, obligatuta. Gorroarekin eta borlak zintzilik, firmes! Halaxe joaten ziren igandetan 11:30etarako mezetara. Presente daukat nola ibiltzen zituzten... Baina zigorren eta halakoen berri ez genuen izaten, kalerako grinarik ez genuen. Hau toki arlotea zen, ez kaleko ez baserriko.

Majo aldatu da geroztik. Txantxillara paseatzera joaten zara?

Atzo joan nintzen, gaur ere bai.

Zer sentitzen duzu?

Parkea dagoen horretan baratza geneukan. Poza ematen du, lehenago ere haurrak baginen, gurean sei, albokoan hiru... Baina orduan halako parkerik ez genuen!

Orain festak eta guzti ditugu. Bai, aurrekoan ere esaten aritu ginen: 80 urtez hor bizitzen eta sekula festarik aitatu ez. Ene... ez zegok gure aita begira! ||

Egun osoko festa, giro ona sustatzeko

Krosarekin hasi eta gauerdiko azken trakara arte, denetik izango da Txantxillan gaur, auzotarrek oso ondo pasa dezaten elkarrekin: sagardo dastaketa, auzo bazkaria, mus txapelketa, toka, Apaxi kontalaria...

KORRIKA hasiko dituzte jaiak Txantxilla auzoan, Txantxilla-Santa Barbara krosarekin; eta korrika batean pasako zaie eguna. Izan ere, aspertzeko tarte bat ere ez dute izango gaur, gauerdian azken traka eta suak botatzen dituzten arte.

Atletek emango diote hasiera jaiari, Txantxillatik Santa Barbarara igo eta buelta. Gaur ere eman daiteke izena, 10 euroan.

Omenaldia eta txupinazoa Haurrentzako jolasak goiz erdian hasiko dira, eta 12:00etan iritsiko da Karmen Etxeberriaren momentua: omenaldia egingo diote; eta txupinazoa botako dute jarraian, jaiari hasiera ofiziala emateko.

Nobedadea, auzo bazkaria Auzotarren bazkaria izango da nobedadeetako bat, aurtengo jaietan. Eta arratsaldea ere

ederra izango da Txantxillan: mus eta toka txapelketak, txokolatada, Apaxi ipuin kontalariaren emanaldia...

Patata tortilla lehiaketa egingo dute iluntzean (18:00etatik 18:30etara entregatu beharko dira tortillak), bertso-lariak kantuan ari direla. Kantuari dantzak hartuko dio segida, Itzartu taldearen erromeriarekin, eta azken trakak eta suak agurtuko dituzte jaiak. ||



Sagardo dastaketa eta pintxoak izango dira aurten ere.

TXANTXILLAKO JAIK 2014

GAUR, TXANTXILLAN:

9:00 Diana txistulariekin
9:30 II. Txantxilla-Santa Barbara-Txantxilla krosa (helduen irteera)
10:30 Krosa (haurrak)
11:00 Haurrentzako jolasak
12:00 Omenaldia Karmen Etxeberriari eta txupinazoa
12:15 Erraldoi eta buruhandiak
12:30 Sagardo dastaketa eta pintxoak
14:30 Auzo bazkaria.
Bazkalostean Rafafa magoa-

ren ikuskizuna.

16:30 Mus txapelketa
Txantxilla kafetegian
17:00 Toka txapelketa
17:00 Txokolatada
17:30 Apaxi Kontalariaren emanaldia haurrentzat
18:00 Arimen Kalejira dultzaineroekin
19:00 Patata Tortilla lehiaketa eta bertso-lariak.
20:00 Saiheski jatea
21:30 Erromeria
Itzarturekin
00:00 Azken traka eta suak



Ondo pasa
txantxillako
jaietan!

Aristizabal 9, behea
943 33 59 45



Kaxuelak Hamburgesak
Ogiltartekoak Plater konbinatuak

**GORA
TXANTXILLAKO JAIK!
ONDO PASAI!**

Santa Barbara auzoa 87
20120 HERNANI
tel 943 337 211
mov 629 991 476
info@arrobistaturia.com

■ WATERPOLOA



Miguel Angel Redondo entrenatzailea, oso pozik dago osatu duten taldearekin, eta jokariak ere gustora dabilta.

«Entrenatzeko baldintza hauekin zaila da, baina txapeldun izan nahi dugu»

Hernaniko waterpolo taldeak ilusioz hasi du denboraldia. Hala ere, Miguel Angel Redondo entrenatzailearen ustez, «entrenatzeko ordua eta espazioa ez dira egokienak».

«OSO pozik nago daukadan taldearekin, eta jokariak ere gustora daude. Aurretik taldean aritu zen jendea berreskuratu dugu, utzi egin zuena, eta talde polita osatu dugu», dio Miguel Angel Redondok, Hernani waterpolo taldeko entrenatzaileak.

Ilusio haundiz hasi dute denboraldia, ahalik eta emaitzarik onena lortzeko gogoz: «Ligako txapeldun izan nahi dugu, nahiz eta ezin garen lehenengo mailara igo, azpiko kategorietan talderik ez dugulako». Ligako hirugarren partidua dute gaur, Easoren kontra: Anoetan, 19:30etan.

«Ezinezkoa da haurrak erakartzea, iluntzeko zortzietan entrenatuta»

Talde bakarra ateratzea lortu du Hernanik, aurten: mutil seniorrena. Neskena osatzerik ez dute izan, eta gazteagoetan ere ezinezkoa zaie talderik ateratzea: «iluntzeko zortzietan ematen digute entrenatzeko aukera, eta azkenerako, jokariak nazkatu egiten dira. Gainera, nola joango zara eskolara, haurrak animatzera? Ordutegi horrekin, ez da inor apuntatzen».

Espazioa ere botatzen du faltan, Redondok: «entrena-

«Dirudiena baino gogorragoa da waterpolo, eta ondo igeri egitea ez da nahikoa. Baina jendea animatu nahi dugu probatzera, kirol polita delako»

menduaren hasieran, kale bat edo bi bakarrik dauzkagu, eta gero hiru edo lau. Eta horrela, ezin dugu ondo entrenatu».

Bat irabazi, bestea galdu

Zailtasunak zailtasun, ondo hasi du Hernanik denboraldi berria. Galdu egin zuten aurrenekoa, Iruñean, Larrainaren kontra, baina itxura ona eman zuten taldeak. Oso partidu berdinduan, 12-11 nagusitu ziren nafarrak. Eta bigarrenean konfirmatu zen hernaniarren maila ona: 9-8 nagusitu ziren, Bidasoa XXI B taldearen kontra.

Euskal Herriko Ligaren bigarren mailan dago Hernani, B multzoan: «multzo batean, Bizkaia eta Arabako taldeak daude; eta bestean, Gipuzkoa eta Nafarroakoak lehiatuko gara». Aurreneko fasea izango da hori.

Helburu nagusia, onenen multzoan sartzea

Fase hori bukatuta, multzo

bakoitzeko onenak, elkarren artean ariko dira, eta azken sailkatuak beste multzo batean: «helburu nagusia da, onenen multzo horretan sartzea. Eta hortik aurrera, txapeldun izan nahi dugu, igotzeko aukerarik ez izan arren».

Hala ere, Redondok onartzen du, Hernanik ez daukala garai bateko indarra: «Gipuzkoako erreferente izan da Hernani, urte askotan. Orain mailak behera egin du, eta beste batzuenak gora. Gipuzkoan asko hazi da taldeen maila, fitxaketak ere egin dituzte zenbait taldek. Gu,

aldiz, berriro ekiten ari gara».

«Jendea animatzen da, baina zaila da erritmoa jarraitzea»

Bi jokari zerotik hasi dira aurten Hernanin: «bat saskibaloitik zetorren, eta bestea txikitan aritu zen waterpoloan». Guztira, 16 jokalariko taldea egin dute, eta gehiago dira probatzera animatu direnak: «asko etorri dira, baina dirudiena baino gogorragoa da, eta zaila da entrenamendu eta partiduen erritmoa jarraitzea. kontaktu asko dago, eta igeri ondo egitea ez da nahikoa. Taldean jokatzeko ere jakin behar da. Oso igerilari ona izan zaitezke, eta oso jokari txarra».

Baina jendea animatu nahi dute, proba egitera, kirol polita delako: «entrenamendu batera azaldu besterik ez daukate: astearte, asteazken edo ostegunetan, 20:00etatik aurrera, kiroldegian». ■

HERNANI WATERPOLO TALDEA 2014-2015

Jokalariak:

Jabier Adres
Iñigo Azcona
Ion Casas
Hur Diez
Ibon Estibaliz
Urtzi Nazabal

Jon Imanol Fernandez
Gabriel Gartzia
Alain Gartzia
Harri Iturrioz
Jon Ander Izuzkiza

Xabier Lizeaga
Julen Murillo
Xabier Ollo
Jorge Redondo
Kepa Sañudo

Entrenatzailea:

Miguel Angel Redondo

■ BTT JAITSIERAK

Aritz Urdanpilleta txapeldun izateko lehian, Galdakaon

Proba garrantzitsua dute gaur, Aritz eta Xabi Urdanpilleta anaiek. Galdakaon ariko dira, BTT jaitsieren Euskadiko Openaren azken proban. Lider dago Aritz, 23 urtez azpikoetan, eta txapeldun izateko aukera aparta dauka gaur. Xabik, berriz, bigarren postua lortzea izango du helburu, junior mailan. ■

■ ERREMONTEA

Barrenetxeak galdu, binakako estreinakoan

Endika Barrenetxeak galdu egin zuen ostegunean, Zeberio Ilrekin batera, binakako txapelketaren estreinako partiduan. 30-40 nagusitu zitzaizkien Urriza eta Agirrezabala. Gaur jarraituko du txapelketak, 16:00etan Galarretan, beste bi partidurekin: Ezkurra-Ion/Etxeberria IV-Etxeberria III; Ezkurra II-San Miguel/Uterga-Endika. Festibalak, beste bi partidu ere izango ditu: Etxabe II-Larrañaga/Juanenea-Zubiri; Segurola-Olazar/Otaegi-Agirrezabala. ■

■ PELOTA

Ojuel eta Lizeaga, semifinalerako pasearen bila

Partidu erabakigarria jokatuko dute Ojuelek eta Lizeagak, bihar, kiroldegiko frontoian, goizeko 11:00etatik aurrera. Soraluzeko Atxotegi eta Aldaperen kontra ariko dira, eta irabazten duen bikoteak jokatuko du semifinala, Gipuzkoako txapelketan. Beste 11 partidu jokatuko dituzte pelotari hernaniarrek, gaur eta bihar. Horietako bost, gaur jokatuko dira kiroldegiko frontoian, 15:30etan; eta beste hiru, bihar 11:00etan. ■

■ ZIKUÑAKO AMA

Urteko azken irteera, Altzara

Zikuñako Ama zikloturista taldeak, egutegiko azken irteera egingo du bihar. Altzako elkar-terera joango dira, eta goizeko 09:00etan abiatuko dira, Zinkoeneatik. ■

■ XAKEA HERNANIKO TXAPELKETA

Tarteak irekitzen hasteko momentua iritsi da

Aurreneko sailkatuak elkarren aurka ariko dira bihar, eta lehenengo diferentziak egingo dira txapelketako lidertzan.

HERNANIKO Xake Txapelketa ari da sartzen bere fase ederrean. Alderik ez da izan oraindik, onenen artean, baina hasiko dira aurreneko tarteak zabaltzen. Izan ere, elkarren kontra ariko dira, orain arte galdu ez dutenetako bi: Eneko Martiarena eta Fernando Esnaola.

Bitik bi irabazi dituzte Ketxus Navascuesek eta Iñaki Erdoziok ere. Aurrenekoak atsedena eskatu du asteburu honetan, eta beraz, puntu erdi jasoko du. Eta Erdoziok, Mikel Zubia izango du aurkari, zeina puntu eta erdirekin dagoen.

Hamar partida, bihar

Txapelketako hirugarren jardunaldia jokatu dute, Zumitza tabernan, arratsaldeko 16:00etan hasita. Guztira, hamar partida izango dira. Goiko postuetan jarraitu edo sartzeko lehiatuko dira batzuk; beste zenbaitek, berriz, aurreneko puntuak lortzea bilatuko dute, txapelketa hasiera txarri buelta emateko. ■



Bihar bilduko dira xakelariak berriro, Zumitza tabernan 16:00etan.

2. jardunaldiko emaitzak

Pinilla 0-1 Erdozio
Oxan 0-1 Fernando Esnaola
Martiarena 1-0 Joseba Goikoetxea
Altuna 0-1 Navascues
Josetxo 0-1 Manso
Mikel Zubia 1-0 Kofi
Ixidro Esnaola 0-1 Fermin
Pablo Arrondo 1-0 Dani
Berrotaran 0-1 Zigor
Joxe Mari Arriaran 0-1 Lujanbio
Aiert Lereki 0-1 Jon Korbella
Udakiola 1-0 Ekaitz

3. jardunaldia (bihar, 16:00)

Fernando Esnaola-Martiarena
Erdozio-Mikel Zubia
Fermin-Pablo Arrondo
Manso-Oxan
Jon Korbella-Altuna
Joseba Goikoetxea-Udakiola
Zigor-Lujanbio
Kofi-Ixidro Esnaola
Dani-Josetxo
Ekaitz-Joxe Mari Arriaran
Atsedena: Pinilla, Berrotaran eta Navascues (eskatuta, 0,5 puntu) eta Aiert Lereki (zozketaz, 1 puntu)

Sailkapena

1-4. Erdozio, Martiarena, Navascues, Fernando Esnaola (2 puntu)
5-8. Mikel Zubia, Pablo Arrondo, Fermin, Felix Manso (1,5 puntu)
9-17. Pinilla, Oxan, Altuna, Joseba Goikoetxea, Jon Korbella, Udakiola, Zigor, Lujanbio (1 puntu)
18-21. Ixidro Esnaola, Josetxo, Kofi, Dani (0,5 puntu)
22-24. Berrotaran, Arri, Ekaitz, Aiert Lereki (0 puntu)

■ KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA				BASKETBOLA			
Mut. Erreg. Oh.	1800 Gasteiz-Hernani	Nastegin	Bihar 19:30	Ohorezko Maila	Hernani-Garibai	Landaren	Gaur 17:30
Mut. Erreg. Gor.	Hernani-Hondarribia	Zubipen	Gaur 19:30	Ohorezko Maila	Hernani-La Unia	Landaren	Bihar 12:00
Mut. Erreg. Ugo	Hernani-Zarauz	Zubipen	Gaur 19:30	Ohorezko Maila	La Unia-Hernani	Borobildak	Gaur 17:30
Mut. Erreg. B.	Azpeitia-Hernani	Tolosa	Bihar 19:30	Ohorezko Maila	Hernani-Hoja	Landaren	Gaur 17:30
Mut. Erreg. Oh.	Hernani-Gasteiz	Zubipen	Bihar 12:00	Ohorezko Maila	Hernani-Hoja	Landaren	Gaur 17:30
Mut. Erreg. Oh.	Osas-Hernani	Unibet	Bihar 12:00	Ohorezko Maila	Zarauz/Gasteiz-Hernani	Arin	Gaur 17:30
Mut. Erreg. Oh.	Hernani-Martillo	Zubipen	Bihar 12:15	BASKETBOLA - Gasteizko Txapelketa			
Mut. Erreg. Oh.	Hernani-Lasgaitz	Zubipen	Gaur 11:00	Ohorezko Maila	Osas-Hoja/Gasteiz	Hernani	Bihar 11:00 (4)
Mut. Erreg. Oh.	Lasgaitz-Hernani	Arin-Hernani	Gaur 11:00	Ohorezko Maila	Zarauz-Arriola/Gasteiz	Hernani	Gaur 15:30 (2)
Mut. Erreg. Oh.	Hernani-Pasaia	Zubipen	Gaur 11:00	Ohorezko Maila	Alonsi-Ebrogoki/Unibet	Hernani	Gaur 15:30 (4)
Mut. Erreg. Oh.	Santo Tomas-Lasgo-Hernani	Berri	Gaur 11:00	Ohorezko Maila	Unibet-Alonsi/Berri	Hernani	Gaur 15:30 (5)
Mut. Erreg. Oh.	Hernani-Arriola-Lasgo	Zubipen	Bihar 09:00	Ohorezko Maila	Osas-Hoja/Gasteiz	Hernani	Gaur 15:30 (1)
Mut. Erreg. Oh.	Hernani-Hoja-Lasgo	Zubipen	Bihar 09:00	Ohorezko Maila	Pasgo-Urrozola/Berri	Hernani	Bihar 11:00 (2)
Mut. Erreg. Oh.	Uzurbil-Hernani	Felix Gasteiz	Bihar 09:00	Ohorezko Maila	Osas/Hoja-Lasgo	Gasteiz	Gaur 15:30 (7)
ESKUBALOA				Ohorezko Maila	Alfarga/Hoja-Lasgo	Alfarga	Gaur 17:30 (2)
Infantilek	Sakel-Hernani	La Sallen	Bihar 10:00	Ohorezko Maila	Osas-Hoja/Lasgo	Hernani	Bihar 11:00 (1)
WATERPOLOA				Ohorezko Maila	Osas-Hoja/Lasgo	Hernani	Bihar 11:00 (2)
Seniorak	Osas-Hernani	Arriola	Gaur 19:30	Ohorezko Maila	Osas-Hoja/Lasgo	Hernani	Gaur 15:30 (2)
SASKIBALOA				Ohorezko Maila	Osas-Hoja/Lasgo	Hernani	Gaur 15:30 (2)
Seniorak	Mundano-Hernani	Arriola	Gaur 19:30	Ohorezko Maila	Osas-Hoja/Lasgo	Hernani	Gaur 15:30 (2)
Infantilek	Hernani-Arriola	Arriola	Bihar 12:00	Ohorezko Maila	Osas-Hoja/Lasgo	Hernani	Gaur 15:30 (2)
Infantilek	Hernani-Arriola	Arriola	Gaur 12:00	Ohorezko Maila	Osas-Hoja/Lasgo	Hernani	Gaur 15:30 (2)
Infantilek	Osas-Hernani	Arriola	Gaur 12:15	Ohorezko Maila	Osas-Hoja/Lasgo	Hernani	Gaur 15:30 (2)
Infantilek	Hernani-Arriola	Arriola	Bihar 10:00	Ohorezko Maila	Osas-Hoja/Lasgo	Hernani	Gaur 15:30 (2)

FUNERARIA ORBEGOZO

ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala HERNANI
Latsunbe, 7

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

■ EREÑOTZU INGURUKO HISTORIA, TOPONIMIA ETA SAROIAK

«Saroiak ondo matendu dira hemen asko erabili izan direlako; oso praktikoa zen»

Luis Mari Zalduak hitzaldia emango du asteazkenean, 19:30etan: 'Ereñotzu inguruko historia, toponimia eta saroiak'.

BA al zenekien Lastaola, Alkatxurain edota Akola izenak orain dela mende mordoxka bertan zeuden saroietik datozela? Eta Latxeri Latsa deitzen ziotela eta erreka esan nahi duela? Honelako kontuez eta beste hainbat istorio interesgarri ariko da Luis Mari Zaldua, asteazkenean. *Ereñotzu inguruko historia, toponimia eta saroiak* izeneko hitzaldia emango du. 2011n, Doktorego Tesia bukatu zuen Zalduak, Urumeako Zilegimendietako Toponimiari buruzkoa, eta lan mardul hura osatzeko, informazio ugari bildu zuen.

Toponimia esan liteke, gizakiak lekuak deskribatzeko erabiltzen dituen izenak direla; toki izenak. Eta zer dira saroiak?

Esan bezala, Urumeako Zilegimendietako toponimia izan zen nere doktorego tesia. Zilegimendiak dira, mendi komunalak (montes francos). Hau da, herritarrek modu librean erabili ditzaketen lurrak, zergarik ordaindu gabe. Herritarrek mendi horiek erabili eta ustiatzeko eskubidea zuten. Gipuzkoan, ertaroan, lur denak Zilegimendiak ziren. Gaur egun, Aralar eta Aizkorri mantentzen dira, nolabait.

Hori bai, desberdindu behar dira, mendi komunalak eta herri lurrak. Herri lurrak Udalaren jabetzakoak izaten dira; Zilegimendiak ez ziren Udalarenak. Jatorrian, herritarren batzarrak kudeatzen zuen, nahiz eta urteekin hori ere aldatzen joan.

Eta saroiak ziren, Zilegimendietako lur hori kudeatzeko sistema. Abeltzaintza nola antolatu? Saroi bidez.

Nola betetzen zuten funtzio hori saroiak?

Saroiak dira toki bat, eremu bat; eta ez dira itxiak. Forma berezia izaten dute: borobilak dira. Azienda mendira bidali ahal izateko, saroi bat behar zenuen, saroi bat erabiltzeko eskubidea behar zenuen. Eguzkiz eguzkiko sistema izaten zen. Egunez, aziendak libre larretzeko aukera izaten zuen lur horietan, baita beste saroietan ere. Behin



Luis Mari Zaldua euskal filologoa eta Parketxe Sareko gidaria.

Ereñotzun 29 saroi daude. Horietatik 13 mantentzen dira eta 11k artamugarria dute oraindik.

gaua iristean, bakoitzak bere saroiara bueltatu behar zuen. Horrela bazekiten bertako edo inguruko abeltzainak ibiliko zirela eta mendiaren kaudimena zehaztuta zegoela; ez zela gehiegi ustiatuko.

Urumeako Zilegimendiek 38 km² dituzte eta 40 bat saroi baziren, behintzat. Horietatik 29 Ereñotzun zeuden. Eta artamugarri asko mantentzen dira oraindik.

Borobilak zirela esan duzu.

Bai. Erdiko harria dago (artamugarria) eta handik abiatuta egiten zuten borobila. Saroiaren mugan, 4 edo 8 mugarri jartzen ziren. Urumeako kasuan, 8. Artamugarrian, laukia zortzi zatitan banatzen zuten, alderik alde doazen lau marrarekin, eta marra horiek jarraituz jartzen ziren kanpoko 8 mugarri horiek.

Neurriak ere zehatzak ziren. Bi neurri zeuden: txikia edo haundia. Txikiak 12 gorabilako erradioa du (164,4 metro); eta haundiak 24 gorabilakoa (329,28 metro). Gaur egun, metroa erabiltzen da, baina garai batean, Euskal Herrian, oinarekin neurtzen zen. Oin bakoitza, 0,28 m zen. Eta zazpiko sistema erabiltzen zen. 7 oinekin, gizabetea egiten zen: 1,96 metro. Gizabetea x7 eginez, gorabila lortzen zen: 13,72 metro. Saroi haundiak askoz gutxiago ziren, eta Ereñotzun bertan, baziren 4 bat.

Noizkoak dira saroiak?

Urumeako saroiaren lehenengo aipamen idatzia, 1178 urtekoa da. Aparrain aipatzen da eta baita Amilibia ere (Ugalde-txon). Orduan, Iruñeako katedralarenak ziren saroi horiek. Dirua hemen bazela adierazten du horrek. Saroiak ziren gaur egungo poligonoak, eta abeltzaintza zen diru iturria. XVI gizaldi hasieran, Udalak erosi zituen Iruñeako katedralarenak ziren saroiak.

Guk indusketa batzuk egin genituen bere garaian, artamugarrienak, ze urtetakoak ziren jakiteko. Batean, K.O. Ilgarren gizaldikoa zela ateraz; beste batean, K.O. Vigarren gizaldikoa. K.A.koa ere bai... Beraz, ez dakigu zehatz,

baina bai, oso zaharrak direla.

Gainera, Euskal Herrian bakarrik ikusi da sistema hau eta ingurune berdean, hau da, Artaxoa edo Nafarroa Erdialde-ra arte.

XVI gizaldian, Udalak erosi zituen, orduan.

Mendi hauen kontrola Donostiak eta Hernanik zuten orduan. Urnieta oraindik ez zegoen. XVII gizaldian sortu zen. Eta orduan beraiek ere eskubidea zutela esan zuten. Mendiak zatitu egin zituzten 1671 urtean: 4 zati Donostiarentzat, 3 zati Hernanirentzat eta 2 zati Urniarentzat. Oraindik, Landarbaso eta Irakurri ingurua ere, Donostiarenak dira. Azketa ingurua ere garai batean bai, baina Hernanik erosi egin zuen.

Ereñotzu, toki egokia al da saroiak aztertzeko?

Saroiak oso ondo mantendu dira hemen. Alkatxurain, Akola... inguru horretan oso ondo mantendu dira. Hori da, asko erabili izan direlako, oso praktikoa zelako sistema. Toponimia ere, oso gauza praktikoa da. Izenak ez ziren jartzen poetikoa zelako, ez; gizakiarentzako oso baliagarriak zirelako.

Eta nolakoa da hemengo toponimia?

Hemen, oso orografia aberatsa dugu: mendi, erreka, iturri, zulo... asko. Horregatik, izen asko daude. Toponimia oso aberatsa da. Eta oso deskribatzailea da. Eta oso gizakitsua, oso agerikoa da gizakia asko ibili zela inguru hauetan. Naturarekin lotutakoak dira izen asko eta baita giza jarduerarekin ere. Gaur egun, gehienak desagertu dira. Dakizkigunak baino gehiago dira ez dakizkigunak.

Adaketak ere izan dituzte izenek, ezta?

Adibidez, Epele eta Latxe esaten dira gaur egun, baina garai batean Epela eta Latsa ziren. Arautzeko momentuan, nola idatzi erabakitzerakoan, elkarriketatuak eta artxiboko

Ikuskizuna eta eskalada, gaur

Udazken Kulturalaren barruan, umeentzako ikuskizuna izango da gaur: *Zirko loretsua*. Eta ondoren, eskalada saioa.

GAUR

11:30, Florenzio Galdino umeentzako ikuskizuna frontoian. Ondoren, eskalada saioa denentzat.

URRIAK 29, ASTEAZKENA

19:30, 'Ereñotzu inguruko historia, toponimia eta saroiak' hitzaldia, Luis Mari Zalduarekin.

AZAROAK 1, LARUNBATA

20:30, Bertso afaria Ur-Mia elkartearen Maialen Lujanbio eta Unai Agirre bertsolariekin. Txartelak salgai Ur-Mia elkartearen eta Irrintzi tabernan 25 euroan.

AZAROAK 8, LARUNBATA

Egunpasa Sarako kobazuloetara. Irteera, 09:30etan. Txartelak Auzo Udalean salgai.

ERAKUSKETA:

'Burruntziak, uraren hegoak' Auzo etxean.

dokumentazioa hartu ditugu kontuan. Dokumentuetan azaltzen diren kasuan haiek hartu ditugu, zaharragoak baitira. Forma osoa mantentzen ahalegintzen gara. Jendeak, gaur egun esaten den bezala esan behar du, baina idazterakoan, arautu bezala idatzi behar da. Polemika sortu dezake, baina demostratua dago dokumentuetan garai batean halaxe esaten zela.

Zeren arabera jartzen dira izenak?

Irizpide bat, zerbait berezia kontuan hartzea izan daiteke, ingurutik desberdintzen den zerbait. Hau da, imajinatu bi aizkolari garelako eta zuhaitzak botatzeko geratu garelako Ereñotzun. Zu ez zara bertakoa eta han hariztia da dena. Non geratuko gara? Pago sail bat dagoen lekua izan liteke. Ereñotzu, adibidez, halaxe sortuko zen. Ereñotz edo erramu gutxi batzuk izango ziren bertan eta izen hori jarriko zioten. Egia esan, etimologia da zailena, izen horien jatorria jakitea. ■

■ GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA

Sagardoa nola egiten den ikasteko aukera bihar, Petritegin

Ate irekien eguna antolatu dute goizeko 11:00etatik 13:30etara.

SAGARDOGILEEK egiten duten lana ezagutzeko, Sagastitik Kulpelara ekimena antolatu du Gipuzkoako Sagardogileen Elkar-teak. Hainbat ekintza egingo di-

tuzte sagardogileek eta besteak beste, Petritegik ate irekien eguna antolatu du bihar. Jendeak, sagardoa nola egiten den ikus- teko aukera izango du: sagarra

bildu, sagarra probatu, muztioa egin... 11:00etatik 13:30etara izango da Petritegiko sagastie- tatik abiatuta. Informazio gehiago: 943 45 71 88. ■

■ OBRAK



Tranbia ibilbideko lanak 2015eko Gabonetarako bukatzea espero da

Aurrelanak martxan dira orain pare bat astetatik eta laster hasiko dira obrarekin. Helburua da, errepidea altueraz igotzea.

TRANBIA ibilbidea eraberritzeko lanak datozen asteetan hasiko di- ra eta datorren urteko Gabone- tarako bukatzea espero dute. Orain bi aste errepidean betelana egiteko beharrezkoak diren aurre- lanak hasi ziren eta epe motzean hasiko dira errepidea altxatzen.

Helburua da, errepidea Urumea Berri eta Arrobitxulo auzoak dauden altuera berdine- ra igotzea eta, bide batez, inguru guztia berriz urbanizatzea. Gaur egunean Tranbia ibilbideak lubaki (trinchera) moduko bat sortzen du, errepide ondoko bi auzoak baino bajuago baitago. Euri asko egiten duenean ura, pilatu egiten da bertan. Udalak azaldu duenez, «lanak bukatuta, eta Arrobitxulo, Urumea Berri eta Tranbia ibilbidea altuera berdi- nean egonda, zailagoa izango da lubaki horretan ura pilatzea eta ondorioz, ibaia bertaraino iristea ur saneamendu saretik edo beste bideren batetik».

Gailur promotorak bere gain Egin beharreko lanak oso kon-

plexuak direla azaldu du Udalak. Gailur promotorak har- tuko du bere gain obraren kos- tua, Urumea Berriko proiektu urbanistikoa garatu ahal izate- aren ondorioz.

Urumea Berri, Arrobitxulo eta Tranbia ibilbideko bizilagunak izango dira lanen eragina gehien jasango duten herritarrak eta Udal ordezkarien ahotik obrak nola- koak izango diren entzuteko auke- ra izan zuten pasa den astean.

1. Fasea: Betelana, errepidea altxatzeko Aurrelanak bukatu bezain laster hasiko dira errepidea altxatzeko obrak. Tranbia ibilbidea trafiko- ra itxiko da, eta bertara autobu- sak eta Tranbia ibilbidetik sar- bidea duten garajeetako kotxe- ak bakarrik sartuko dira.

Testiguak jarriko dira errepide- an betelana egiteko materiala nola konpaktatzen den ikusteko. Behin-behineko asfalto geruza bat jarriko zaio errepideari. Horrez gain, Tranbia ibilbideko 1, 3, 5 eta 7 atarien aurreko espa-

loia berrituko da. Gabonetarako bukatzea aurreikusten da.

2. Fasea: Kontsolidazioa Betelana egiteko, materiala kon- paktatuko dute. Tranbia ibilbi- dea trafikora irekiko da eta lehe- nengo fasean errepidearen er- tzean jarritako testiguen esango dute noiz konpaktatu eta kon- tsolidatzen den errepide azpiko materiala. 2015eko udara hasie- rarako espero da amaitzea.

3. Fasea: Hiritartzea Egindako betelana kontsolidatu- ta dagoenean, errepidea asfalta- tu eta pintatuko da. Inguru guz- tian espaloi eta berdeguneak jarriko dira. Gaur egun Tranbia ibilbidean dauden badenak ken- du eta zebrabideak altxako dira kotxeen abiadura moteltzeko. Erribera plaza eta Arrobitxuloko plazaren artean geratuko den errepide zatian espaloietako bal- dosak jarriko dira, bere izaera peatonala azpimarratzeko. Espa- zio honen inguruan, autobus paradak ere jarriko dira. ■

■ ANTZERKIA

‘Hiru’, komedia zorua ikusgai gaur

Hiru izeneko antzezlanaren izango da ikusgai gaur kultur etxean (20:00). Komedia zoro eta dibertigarri honek arrakasta handiko ibilbidea egin du nazioarteko antzokietan. Hiru emakume, berrogeita hamarrek betetze- ko trantzean, bakarrik daude eta ama izateko ametsa bete gabe. Sarrera: 6 euro. Orubete lehenago salgai. ■

Umeentzako antzerkia, bihar

Mollie Malonen ipuin sinestezina ikusteko aukera izango dute bihar umeek kultur etxean (17:30). Mollie neska oso berezia da, bere aitona- ren erloju dendara joan eta ustekabeko abentura zirraragarria biziko du bertan. Sarrera: 2,5 euro. Orubete lehenago salgai egongo dira. ■

■ GAZTELEKUA



Aurreko larunbatean, monologoak eskaini zituen Aitor Txarterinak.

Ogia egingo dute gaur

Gaztelekuan, Zu protagonista izeneko ekintza izango da gaur eta ogia egingo dute. Bihar, berriz, pelikula ikusiko dute. ■

■ GURE ESKU DAGO

Mosaikorako tiketak salgai

Azaroaren 8an mosaiko erraldoi bat egin nahi du Gure Esku Dago eki- menak Zurriola hondartzan, eta bertan parte hartzeko, tiketa erosi behar da, giza katean bezala. Tiket hauek, Ikatz, Pastoriza, Zipotza eta Ekaitz tabernetan daude salgai, 5 euroren truke. Horrez gain, bihar eta datorren igandean, Joseba Barandiaran plazan jarriko dute postua, 12:00etatik 14:00etara. Tiketa gorde egin behar da eta egunean bertan, Kursaaletan egongo den postuan eman. 11:00etan izango da mosaikoa. ■

■ 28AK LIBRE! EKIMENA

Epaiketa politikoen eta torturaren aurka, kontzentrazioa ostegunean

28 gazteen kontrako epaiketak ostegunean jarraituko du (tartean da Julen Zuaznabar astigartarra) eta gazteek torturaren aurkako mobilizazioak deitu dituzte. Astigarragan kontzentrazioa egingo da 20:00etan, Joseba Barandiaran plazan. Leloa: *Stop tortura! 28ak libre! Epaiketa politikorik ez! ■*

■ ERRIGORA KANPAINA

Nafar hegoaldeko produktuak eskuratu eta euskerari laguntzeko aukera

Iaz bezala, Errigorak udazkeneko kanpaina jarri du martxan: *Nafar hegoaldeko uzta, euskarari puzka*. Auzolanari esker, 50 eurotan, Nafar hegoaldeko produktuez osatutako saski eder bat eskuratzeko aukera dago. Gainera, ekarpen horren %25a Nafarroa hegoaldeko euskalgin- tzara joango da. Saskiak eskatzeko epea azaroaren 12ra arte da. Astigarragan, leku hauetan eskatu eta jaso daitezke saskiak: eskolan, AEKn eta Zipotza tabernan. ■

■ GALTZAUR

Bazkarira joateko, izena eman behar da

Galtzaurrek 32garren urteurrena ospatuko du eta 80 urte betetzen dituzten bazkideak omenduko ditu. Bazkari eder baten bueltan ospatu- ko dute eta parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute datorren astean: urriak 27, 28 eta 29 (10:00-12:30). ■

■ KULTUR ANIZTASUNA - PARTE HARTZE PROZESUA

Kultur aniztasunaren plangintza osatzeko, herritarrekin bilerak

Asteazkenean izango da lehenengo saioa, 18:00etatik 20:00etara.

«AZKEN urteotan Astigarragatik kanpo jaiotako jende asko etorri da gure artera bizitzera, dela inguruko herrietatik, dela bestelako herrialde batzuetatik. Aberastasun horretaz jabe-

tuta, Astigarragako Udalak kultur aniztasuna gizarteratzeko plangintza bat osatu nahi du, herritarrekin elkarlanean», azaldu du Udalak. Hori horrela, parte hartze prozesua antolatu

du. Hiru bilera edo saio izango dira. Lehenengoa, asteazkenean izango da, 18:00etatik 20:00etara, kultur etxeko areto nagusian. Aniztasunaren diagnostikoa landuko da. ■

■ AUTOBUS ZERBITZUA HOBETZEKO PROZESUA

Martutenenera doan linean, orduko hiru zerbitzu

A1 linea honen ordutegia, Arantzazuko Amaren ordutegiekin ere koordinatu da. A2 linea, zuzenekoa, ordu erdiro izango da.

GIPUZKOAKO Foru Aldundiak datorren urtetik aurrera, autobus zerbitzu berria jarriko du martxan eta aldaketak izango dira Gipuzkoako autobus linea gehienetan, zerbitzua hobetzeko asmoz. Asteazkenean, eskualde mailako aurkezpena egin zen Hernanin eta azalpenak eman zituzten. Parte hartze prozesu baten ostean osatu du Diputazioak proiektua, herritarren eta Udalen proposamenak kontuan hartuta. Astigarragari dagokionean, A1 linean (Hernani-

Donostia, Martutenetik barrena), orduko hiru zerbitzu inguru izango dira. Lanegunetan, 07:45etan aterako da lehenengoa Hernanitik eta azkena, 23:15etan. Astigarragan, puntu eta terdietan izango da, gutxi gorabehera eta hainbat ordutan, hirugarren autobus bat ere izango da. Ordutegi horiek, Arantzazuko Amako ordutegiekin ere koordinatu dituzte. Donostiatik, 06:00etan aterako da lehenengoa eta 23:00etan azkena. Ostiraletan, 01:00ak

arte luzatuko da zerbitzua.

A2 linea (Hernani-Donostia, zuzenean), ordu erdiro izango da. 06:00etatik 22:00etara izango da zerbitzua, eta ostiraletan, 01:00ak arte luzatuko da.

A3 linea (Astigarraga-Ospitaleak-Unibertsitatea), berriz, orduro mantenduko da. Ospitaleko langileen ordutegiak aintzat hartzen saiatu dira.

Informazio gehiago, www.garraioahobetzen.net helbidean: ustiapen plana. ■

■ HARITUZ

Esperientziaren eskola, asteartetan

Esperientziaren eskola martxan da berriz. Asteartero izango da 16:00etatik 18:00etara, kultur etxean. Hemendik aurrera, Harituzek antolatuko du, Mugabek beharrean. Orain arte bezala, gai desberdinak landuko dituzte. ■

Zinea, asteartean

Zine foruma ere antolatu ohi du Harituzek, hilabeteko azken asteartetan. Datorren astean, *Le Havre* pelikula emango dute, 18:00etan kultur etxean. Marcel Marx idazle bohemio ezaguna, dena utzi eta Le Havrera joango da bizitzera. Buruhausterik gabe biziko da bere bizitzan haur etorrikin bat azaldu arte. ■

■ MUSIKA ESKOLA

Perkusio tailerrean apuntatzeko aukera

Helduentzako perkusio tailerrean apuntatzeko epea asteartera luzatu dute. Eta ondoren ere, nahiz eta epea pasa, ordutegia ondo etorritz gero, apuntatzeko aukera izango da. ■

■ LITERATUR SOLASALDIA

Etzi, Matuteren 'Demonios familiares' liburua

Hilabete honetako Literatur solasaldian, Ana Maria Matute idazlearen *Demonios familiares* liburua azalduko da. Jorge Carrerok zuzenduko du. Gaztelaniaz izango da. Solasaldia 19:30etan hasiko da, Liburutegian. ■

■ OGASUN BATZORDEA

Garraioaren zentro integrala, aztergai

Ogasun Batzordeko bilera izango da astelehenean, 18:00etan. 9 puntu izango dituzte aztergai. Horien artean: AP-8 autobideko garraioaren zentro integralaren proiektuaren alegazioak; zerga fiskalak; eta Beterriko Garapenerako Elkarteak. ■

■ PRESO ETA IHESLARIAK

Kontzentrazioa, astelehenean

Preso eta iheslarien eskubideen alde, kontzentrazioa deitu dute astelehenean, iluntzeko 20:00etan, Joseba Barandiaran plazan. ■

■ SASKIBALOIA



Argazkia: Xalima

Hiru talde nagusiek etxean jokatu dute

Gipuzkoako ligako mutilek, derbia dute Hernanirekin. Neskek jokatu dute aurretik.

MUNDARRO-La Salleko hiru talde nagusiek etxean jokatu dute gaur. Euskal Ligako mutilek La Sallen jokatu dute 20:15etatik aurrera. Irungo Erroibide taldea izango dute aurrez aurre. Etxekoek, bi partidu jokatu dituzte eta bana irabazi eta galdu dute. Erroibidek hirutik bakarra irabazi du. Irabazi eta sailkapenean gora egiteko aukera

izango dute Mundarrokoek.

Neskek ere, hirugarren partidua jokatu dute gaur eta bigarren garaipena lortzeko aukera izango dute. Astigarragan jokatu dute, 16:00etatik aurrera, Murkilen aurka.

Probintzial mailakoak nahiko estu dabilta eta gaur derbia ere izango dute jokoan, Hernaniren aurka, 18:00etan. ■

■ FUTBOLA

Liderraren aurka, gaur

Mundarrok liderra izango du gaur aurrez aurre: Urnieta. Aurkarien etxean jokatu dute gainera. Arratsaldeko 17:30etan izango da. Punturen bat ekartzea izango da moreen helburua. ■

■ ESKU PELOTA

Gurutzealde irabazi, Aurrera Saiazi

Oier Gurutzealde Urnietako taldean dabil eta Loitegirekin bikotea osatuta, 22-10 irabazi zieten Aurrera Saiazeko bikoteari (Chiapuso-Mujika), asteazkenean. Gipuzkoako Txapelketako ligaxka jokatzeko ari dira, bigarren mailan. ■

■ KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA			
Ereag. Preferentia	Urnieta/Mundarro	Unioetan	Gaur 17:30
Onorezia jubenila	Mundarro/Lengokoak	Zirkumendegin	Gaur 16:00
1go jubenila	Martutene/Mundarro	Martutene	Gaur 15:30
Onorezia kadetea	Añorga/Mundarro	Rozolan	Gaur 12:00
1go kadetea	Mundarro/Zarautz	Zirkumendegin	Bihar 09:30
Onorezia infantil	Mundarro/Sarriena	Zirkumendegin	Gaur 12:00
Infantil bota	Añorga/Mundarro	Rozolan	Bihar 10:30
1go infantil	Mundarro/Tesabias	Zirkumendegin	Gaur 10:00
Alekinak	Mundarro/Ozilibas	Trinbarnen	Bihar 10:45
SASKIBALOIA			
2. Euskal Liga mutilek	Mundarro-La Salle/Erroibide Irin	La Salle	Gaur 20:15
2. Euskal Liga neskek	Mundarro-La Salle/Munil	Astigarragan	Gaur 16:00
Probintzialak	Mundarro-La Salle/Hernani	Astigarragan	Gaur 18:00
Jubenilek	Mundarro-La Salle/Oier	La Salle	Gaur 16:00
Kadete mutilek	Erroibide Irin/Mundarro-La Salle	Azken Portu	Gaur 16:00
Kadete neskek	Mundarro-La Salle/Goleiri	La Salle	Gaur 12:00
Mini mutilek	Astigarragako Herri Eskola/Landaberi	Astigarragan	Gaur 10:00

FUTBOLA ANA VITORIA ENTRENATZAILEA

«Nesketan, adin hau konplikatua da, asko hitz egiten saiatzen naiz»

Ana Vitoria oiartzuar-astigartarra futbol entrenatzailea da, Amara Berri taldean. Infantil mailako neskek entrenatzen ditu. Hirugarren denboraldia du aurtengoa. Hiru astigartar ere izan ditu taldean: Andrea Nieto, Yune Irurzun eta Maider Mugika.

ANA Vitoriak 13-14 urteko neskek entrenatzen ditu, hau da, infantil mailakoak. Amara Berri taldean aritzen da, futbol 8an. Hirugarren denboraldia du aurtengoa. Nola hasi zen azaldu dio Kronikari: «Ilobak jokatzeko zuten Amara Berrin eta entrenatzaile bat behar zutela eta, neri esan zidaten ea animatuko nintzen. Ordura arte partiduak ikustera eta joan izan nintzen. Egia esan, beti gustatu izan zait futbola. Realaren partiduak beti jarraitzen ditut eta nere semeak Mundarron jokatzeko zuenean ere, partidu guztiak ikusten nituen. Ni ere futboleko aritua naiz, 19 urtera arte. Oiartzunen jokatzeko nuen, berez hangoa bainaiz. Animatu egin nintzen eta oso gustora nago. Neretzat, nere eguneroko bizitzatik ateratzeko bide bat da».

Vitoriak ez du entrenatzaile izateko ikastarorik jaso, baina esperientzia pixka bat badu: «Neskekin hasi aurretik, Astigarragako Ikastolako 5-6 mailako mutilekin aritu nintzen. Entrenatzaileari laguntzen aritu nintzen. Gozada bat izan zen».

Neskekin, zeharo desberdina
Neskekin oso gustora dago Vitoria, baina zeharo desberdina dela azpimarratu du, psikologo antzeko lanak ere egin behar izaten ditu: «Adina da konplikatua. Asko hitz egiten saiatzen naiz eta arazo bat baldin badago hori konpontzen. Nere sekretua da, guztia aurpegi esatea. Mutilekin egon nintzenean, ximpleagoa zen». Adin tarte honetan, hala ere, entrenatzailea emakumezkoa izatea hobe dela uste du Vitoriak: «Beste adinetan ez du inporta, baina tarte honetan bai. Beraiegana gerturatzeko errazagoa dela iruditzen zait. Aldaketa garaia da beraientzat eta zailtasun eta konpleju asko izaten dituzte: hilekoa tabua da, besteak beste. Ni saiatzen naiz gai horiek guztiak naturaltasunez tratatzen».

Seme bat badu etxean Vitoriak eta zelaian, 11 alaba dituela esan liteke: «Amaren papera egiten dudala esaten didate beste entrenatzaileek eta



Ana Vitoria, bere etxeko plazan. Garai batean bertan jokatzeko zuten futboleko semearekin eta gerturatzeko ziren ume guztiekin.

amorrazioa ematen dit horrek, baina gauza batzuekin halaxe jokatu beharra sentitzen dut», dio. Hala ere, oso entrenatzaile zorrotza dela argi utzi du: «Beraien artean batzuetan gaizki hitz egiten dute: takoak esan, ondokoa gutxietsi, jokalaria bati txarra dela esan, besteari par egin... Gauza horiek nik ez ditut onartzen. Horretan bai naizela zorrotza eta norbait bidali behar badut, bidali egiten dut. Malahostia haundia dut».

Gurasoekin zailtasunak

Tira bira asko gurasoekin izaten direla azaldu du Amara Berriko entrenatzaileak: «Umeak, guk, gurasok hezi ditugu horrela. Eta askotan gurasoak izaten dira okerre-nak. Kargu ere hartzen dizute... Liga hasierak batez ere, oso gogorrak izaten dira».

Ondo pasatzea

Vitoriak galtzea ez duela gustoko aitortu du, baina bere helburua, taldeak ondo pasatzea dela: «Irabazten badugu hobe, baina hori da aurrenekoa. Eta ez badugu irabazten, asteartean fisiko gehiago!», dio barrez. Horrez gain, argi utzi du bereztat ez dagoela ez jokalaria onik ez txarrik: «Beti uste dute kapi-

«Kontsolazio Kopa irabazi izana krixtona izan zen. Irabaztean, denak neregana etorri ziren. Oraindik emozionatu egiten naiz»

taina dela onena, baina nik argi uzten diet denak direla onak eta denak direla txarrak. Eta ez da futboleko ondo jokatzea bakarrik. Jokalari on bat izateko, beste ezaugarri asko ere kontuan izan behar dira: errespetuz jokatzeko, entrenatzailearen esanari jaramon egitea, umila izatea...».

Donosti Cupen, kopa

Donosti Cup Txapelketan Kontsolazio Kopa irabazi zuten Amara Berriko jokalariek eta oso oroitzapen bereziak ditu entrenatzaileak: «Alde batetik, oso gogorra izan zen. Partidu asko izan ziren, bata besteari atzetik, eta oso partidu zailak. Kanpotarrak krixton emakume pus-kak ziren, eta oso arazo zorrotzak zeuden txapelketan. Nereak ez zeuden ohituta erritmo horretan

eta hamaikakoan jokatzeko eta esaten nien disfrutatzea aterako ginela, besterik gabe. Baina gero ikusi nuen ondo gindoazela. Onenen aurka galdu ostean, Kontsolazio Kopa jokatu genuen eta baita irabazi ere. Tolosaren aurka irabazi genuen finala, penaltietara. Krixtona izan zen. Politena izan zen bukatzean, denak neregana etorri zirela. Emozionatu egin nintzen han eta oraindik ere emozionatu egiten naiz», kontatzen du negar malko batzuk ageri direla. Gauean, afari baten bueltan ospatu zuten Donostian eta opari eta guzti eskertu zioten Vitoriari egindako lana: «Realeko kamixeta bat, perfume bat eta turuta bat oparitu zizkidaten. Kartel bat ere bai, eskerrak emanez», dio.

Astigarragatik hiru jokalarik hartu zuten parte: Andrea Nieto, Yune Irurzun eta Maider Mugikak. Gaur egun, Nietok eta Mugikak jarraitzen dute taldean.

Aurreko urtean ere parte hartu zuten Vitoriak Donosti Cupen, baina desberdina izan zela dio: «Aurreko taldearekin izan zen. Berria nintzen eta oso desberdina izan zen. Hala ere, oso esperientzia polita izan zen hura ere. Indiaren aurka jokatu genuen. ONG batekin etorri ziren. Kultura desberdinak eza-

gutzeko aukera ematen du Donosti Cupek. Haiek erakutsi ziguten oso gutxiarekin ahal dutela futboleko jokatu. Indian hankutsik jokatzeko dute. Hemen berriz, tonteri asko dugu».

Astigarragako jokalariek, kanpoan

Futboleko aritzen diren Astigarragako neskek dexente badirela azaldu du Vitoriak eta besteak beste, Amara Berrira joaten direla herrian ez dagoelako aukerarik. «Eta pena da. Bilera bat egin zen, denboraldi honetan infantilen taldea martxan jartzeko, baina ez da atera. Saiakera gehiago egin beharko litzatekeela uste dut», dio.

Amara Berrin ere neska gutxi dagoela gaineratu du: «Jendea joaten da Intxaurdira, Hernanira, Oiartzunera... Aurten adibidez, kadetetan ez da taldea osatu».

Astigarragan taldea sortuko balitz, entrenatzaile izan nahiko lukeen galdetuta, halaxe erantzun du: «Oso gogorra egingo litzaidake taldea uztea; nere jokalariek uztea. Gaur egun, behintzat, ez nuke Amara Berri utziko».

Liga hasiera, gaur

Vitoriak eta bere taldeak gaur ekingo diote ligari. San Patricioren aurka jokatzeko dute 09:00etan, Martutenen. Iaz hirugarren postuan geratu ziren, baina aurreko bost jokalariek berri daude taldean eta zer moduz moldatuko diren ez dakielako dio: «Taldea egitea izango da lehenengo, gero ikusiko dugu. Poliki poliki joango gara».

Ez du gaizki moldatzea espero, baina momentu txarretatik ateratzen ere badakiela azaldu du: «Lehenengo partidua jokatu nuena, nesken entrenatzaile bezala, Añorgaren aurka izan zen eta 2-1 galdu genuen. Pelota partidu bat jokatu izan bagenu bezala, ia-ia! Pentsatu nuen: Non sartu naiz? Baina pixkanaka atera ginen eta azkenean ez genuen hain gaizki jokatu», dio.

Honakoak izango dira aurtengo aurkariak: San Patricio, Luberri, Intxaurdi, La Salle, Añorga eta Hernani. ■

■ GAZTE LOKALEN ORDENANTZA



Ordenantza sortzeko prozesuan parte hartu duen gazte koadrilako lagun batzuk, «kale gorrian!», lokala berreskuratu arte.

«Asmoa daukagu bilera egiteko, guk eta bizilagunek elkar ezagutzeko»

Tranko zaharra zegoen kale horretan zuen lokala 18 bat laguneko koadrilak. Baina bizilagun batekin izandako desadostasunak zirela-eta, Astigarragako Udalak

lokala hustuarazi zien. Arazoari aurre egiteko, gazte lokalen funtzionamendua erregulatzeko ordenantza egin du Udalak, gazteekin elkarlanean arituta.

«HEMENTXE, kale gorrian daramakigu urtebete baino gehiago!», diote gazteek. Baina gazte lokalen funtzionamendua erregulatzeko ordenantzari errekursoak jartzeko epea bukatu bezain laster, lehengo lokalera bueltatzeko asmoa dute. Udalarekin elkarlanean aritu dira ordenantza hori sortzeko. «Orain, modu legalean egongo gara lokalean».

Arazo batekin hasi, eta konponbidera iritsi. Nolakoa izan da prozesua?

Lehengo urteko martxoa edo apirila aldera gertatu zen. Hilabete ere ez genuen egin lokal hartan. Lehenengo aste-buruan bertan sortu zen arazoa. Gainera bizilagunak keja jarri zuen, soinu ateratzen

genuela-eta. Udaltzainei deitu zien, bere umeak ezin zuelako lo egin zaratarekin. Baina gaueko 21:00ak inguruak besterik ez ziren, eta ez ginen zarata egiten ari. Besterik gabe, Bartzelonak jokaturako futbol partidu bat ikusi genuen, eta *gooo!*, egin genuen buila. Ez besterik.

Bizilagunak berak azaldu al zizuen keja? Ala Udaltzaingoa joan zitzaizuen?

Bizilagunak erratzarekin soinu atera besterik ez zuen egin. Ez zen sekula ere guregana jaitsi ezer esatera edo hitz egitera. Normalena da zuzenean guregana hitz egitera etortzea, lehenengo aldian behintzat. Baina zuzenean udaltzainei deitu zien. Hirugarren aldiz deituta-

«Poligonoetako zulo hartan ginenean, ez genuen molestatzeko! Inor ez zen gurekin gogoratzen!»

koan, udaltzainak joan zitzaizkion etxera, eta haiek esaten ziguten belarria lurrari pegatuta eduki zutela, eta ez zela ezer entzuten! Eta hori, kontuan hartuta etorritako udaltzain hura ez dela oso gure aldekoa...

Gainontzeko bizilagunekin ere izan al zenuten arazorik? Bat ere ez! Gainera, lokalaren

«Zaharrek zaharren egoitza dute, helduek tabernak edo etxean egoteko aukera, eta gazteok?»

ondoan estetika zentro bat dago, eta pentsatu genuen hura molestaturiko genuela, beti han ondoan egoten ginelako. Baina bera pozik zegoen gurekin. Kejaka ibilitako bizilaguna nor den ez dakigu, baina ez da lehenengo aldia beste norbaitekin liskarrean ibiltzen dena. Guk inguruko bizilagunei eta komertzioak zituztenei galdetu

genien, eta denak zeuden pozik gurekin.

Baina azkenean, lokalik gabe gelditu zineten...

Presioa egin zuen udaletxean, eta Udalak prezintatu egin zuen lokala. Azaldu ziguten arazoa zela, gazte lokalen erabileraren inguruko araurik ez zegoela, eta egin egin behar zela.

Hain zuzen, zuekin aritu da Udalak elkarlanean, ordenantza egiteko.

Bai. Batzuk mugitzen hasi ginen, azaldu zigutelako legea beharrezkoa zela lokalean egon ahal izateko. Hemen inguruan ez zegoen horrelako ordenantzarik, eta guk Urnietan eta Lezon dauden irizpideak hartu

«Astigarragan ez dago kalean egoteko tapatutako tokirik. Udaran ederki egoten da kalean, baina Euskal Herrian, euria, hotza eta haizea egiten ditu gehiago!».

genituen oinarri, eta moldatu egin genituen, Ione Olaziregi zinegotziarekin bilduta. Gero udaletxean aritu dira teknika-riak, moldaketak egiten.

Zein dira zuen eskaerak?

Kontua da ez daukagula non egon edo bildu. Gaztetxoenek gazte lokala daukate; zaharrek, zaharren egoitza; helduek tabernak, edo etxea bera... Eta gazteok? Guk ez daukagu non egon! Eta tabernetan ezin gara ibili beti! Baina herrian ez dago lekurik, eta gutxiago, tapatuta dagoena. Udaran ederki egoten da kalean, baina Euskal Herrian euria, hotza, haizea egiten ditu gehiago! Ez dugu beste munduko ezer egin nahi. Telebista ikusi; bideo-jokoetan ibili; batzuetan, baita etxerako lanak egin ere! Edo besterik gabe, lasai egon eta tertulian aritu. Frontoiaz aparte, ez dago beste ezer, eta hor ume txikiak ari badira jolasten, ez gara sartzen.

Ezagutzen duzue arazorik izan duen beste koadrilarik? Zuek izan duzue besterik lehenago?

Lehenago poligonoetako garaje batean egon ginen. Gainontzekoek ere han dauzkate lokalak. Baina han ez dago kejarik. Arnasa ere ezin zen hartu han! Poligonoetako zulo hartan ginean, ez genuen molestutzen! Inor ez zen gurekin gogoratzen! Bestela, orain 2-3 urte inguru, beste gazte koadrila batek izan zuen arazotxoren bat bizilagunekin, baina elkarren artean konpondu zuten. Beti egin izan den bezala! Hori da normalena!

Ordenantza sortzeko prozesuan parte hartu duzuenez, ondo ezagutuko duzue. Ados zaudete? Gustatzen zaizue?

Zailena izango da ordutegiari jarri zaizkion limiteak betetzea, eta aseguruaren kontua. Gazteak gara, eta... Ikasleak gara gehienok, eta ez daukagu dirurik! Eta lokalen jabeentzako ere, lan eta gastu haundia goa da. Gainontzekoa ondo dago. Ordutegia bera ere, astean zehar normala da. Baina asteburuetan... 01:00ak aise pasatzen dira! Eta horrek ez du esan nahi zarata ateratzen dugunik. Besterik gabe, telebis-

ta ikusten, lasai bagaude, ez litzateke arazorik sortu behar. Pelikula bat ikusten jarritz gero, aise jotzen digute goizeko 02:00ak! *Salvame* ere ordura arte egoten da! Bizilaguna gonbidatu beharko dugu!

Ordenantza berriarekin, lokala erabiltzeko eskaera egin behar da aurretik. Hasi zarete prestatzen?

Proiektua egiten hasi gaitezke dagoeneko, eta lokalaren neurriak eta gure datuak badauzkate udaletxean. Gure asmoa da ordenantza ofizialki martxan jartzean, lokalean sartzea. Jabea ados dago gurekin, eta berriz alokatzeko prest dago. Ordenantzarekin ere lagundu digu. Gainera, lokalak arauak betetzen ditu: komuna badu, neurriak betetzen ditu... Eta zerbait egin behar bada, gu prest laguntzeko!

Lokala berreskuratuko duzuela uste duzue, hortaz.

Arazo berririk espero duzue? Asmoa daukagu bilera egiteko, guk eta bizilagunek elkar ezagutzeko. Esplikatu nahi diegu zer egin dugun hor egon ahal izateko, eta argitzeko, hemendik aurrera legearen barruan egongo garela. Kezka bakarra daukagu: lehengo bizilaguna. Seguru lehenengo egunean bertan 01:00etarako zain egongo dela, ea garaiz ixten dugun ikusteko! Eta kasu horretan, isunek ere kezkatzen gaituzte pixka bat. Arau hauste txikienarengatik 150 euro ordaindu beharko ditugu!

Hala ere, arazorik sortzen bada, Bizikidetza Mahaian egoteko aukera izango duzue.

Bai. Bertan egongo ginateke gu, jabearen lokala, eta arazoa duen bizilaguna. Azken batean, hori da normalena. Arazoak elkarrekin hitz eginda konpontzea, adostasun batera iristea. Baina kontua da, bizilagun honek lehenago ere ez duela hori egin! Ez diogu aurregia jartzen, ez delako sekula guregana etorri, hitz egitera.

Gero gerokoak. Orain, ordenantza indarrean jarri eta lokala berreskuratzea besterik ez zaizue geratzen. Hau dena egin dugu lokala berriro lortzeko. Ordenantza indarrean sartzean bertan egotea espero dugu. ■

Aisialdirako eta atsedenerako eskubideak errespetatzeko arauak

Gazteen, lokalen jabeen eta bizilagunen arteko errespetua ditu oinarri ordenantzak. Hilaren 27 eta 29an aurkezpena egingo da.

GAZTE koadrila baten eta inguruko bizilagunen artean sortutako gatazken harira egin da ordenantza hau, gazte lokalen erabilera arautzeko eta gazteen dibertsiorako eskubidea eta bizilagunen deskantsurako eskubidea bermatzeko.

Arazo horiek zirela-eta, gazteen lokala hustu egin zuen Udalak, baina segidan, gazte horiekin lanean hasi zen, elkarbizitza ahalbidetuko zuen ordenantza bat sortzeko. Horrelako ordenantzarik ez zegoenez, antzekoak ziren batzuk hartu zituen oinarri Udalak. Horietan, ordutegiak, arauak ez betetzearen ondorioz jarri zitezkeen isunak... zehazten ziren. Horiekin osatu zuten proposamena teknikariek, eta gazteei erakutsi zieten ondoren, hauen iritzia jaso ahal izateko. Orain, emaitza publiko egin dute, eta 30 eguneko epea dago, errekursoak jartzeko.

Gazte lokalen erabileraren inguruko arauak

Ordenantza hau ez zaio aplikatuko edozein motako lokali; diru irabazi asmorik gabeko jardueretarako erabiltzen direnei bakarrik aplikatuko zaie, normalean, gazteek aisialdirako erabiltzen dituztenak. Komertzioak, ostalaritza negozioak... bezalako lokalek beste mota bateko arauak izaten dituzte. Helburua da bermatzea gazteek ondo pasatzeko duten eskubidea, eta inguruko bizilagunek deskantsurako dutena.

Arauak, ordutegiaren eta erabileraren inguruan

Ordenantzak hainbat arau eta debeku zehazten ditu.

Batetik, ordutegia zehaztu da. Gaueko 22:00etatik aurrera lokaleko ate eta lehioak

Arauak jarri dira lokaletako ordutegiak, lokalen erabilera eta garbitasuna eta lokaletako jardueraren inguruan.

itxita eduki behar dira; gaueko 22:00etatik goizeko 09:00etara ezingo da zarata gogaikarririk atera; eta 23:30etatik aurrera lokalak itxi egingo dira (ostiral, larunbat eta jaiegun bezperetan 01:00ak arte ireki ahal izango dira).

Bestalde, lokaleko erabiltzaileek 16 urtetik gora izan beharko dituzte.

Jarduerari dagokionez, berriz, guztia lokal barruan egin beharko da, eta ezingo da gune publikorik okupatu edo bertan zaratarik atera. Era berean, lokalaren kanpoko aldea edo ingurua garbi mantendu beharko da.

Hainbat debeku

Arauak zehazteaz gain, hainbat debeku ere ezarri dira. Batetik, ezin izango da egin gazteentzako lokalen jarduerarekin lotuta ez dagoen ekintzarik; hala nola, produkturen baten salerosketa. Era berean, ezingo da lokala etxebizitza moduan erabili.

Bestetik, debekatuta egongo da sua sortzeko erregaiek edo produktu piroteknikoak bertan gordetzea.

Kea edo 65 dB baino soinu altuagoa ateratzen duten tresnak ere debekatuta egongo dira, lokala ez badago akustikoki isolatua edo ez badu kea ateratzeko estraktorerik. Lokalak duen aforoa

ere ezin izango da gainditu (aforoa zehaztu egin beharko da lokal bakoitzean).

Azkenik, animaliak bertan bakarrik uztea edo gauean animaliak bertan edukitzea ere debekatuta egongo da.

Lokala erabiltzeko eskaera Lokala erabiltzen hasi aurretik eskaera egin beharko da udaletxean.

Horretarako, hainbat datu eman beharko dira. Besteak beste, erabiltzaileen datuak (adin txikikoak badira, gurasoenak), jabearen datuak, lokalaren deskribapena (komun bat izan beharko du, eta hainbat segurtasun, higiene eta hirigintza arau bete beharko ditu), jabetza egiaztatzeko dokumentua edo alokairuaren kontratua, ordenantza hau errespetatuko dutela dioen aitortpena, eta aseguruaren kopia.

Arazoak sortuz gero, elkarbizitzarako protokoloa

Ordenantzan zehazten diren arauak edo debekuak errespetatzen ez diren kasuetarako, protokoloa ere zehaztu da. Hasteko, sortzen den arazoan inplikaturata dauden alde guztiek ordezkariren bat izango dute: lokaleko erabiltzailetako bi, kexa jarri duen bizilaguna edo portaleko administrazioa, lokaleko jabea eta Udaleko Gazteria zinegotzia, Hirigintza zinegotzia, Udaltzaingoa edo teknikari bat (beharraren arabera).

Kexa bat dagoenean, udaltzainak jakinaren gainean jarriko ditu bi aldeak, kexa egiaztatuko du, eta elkarrizketa bideratuko da inplikatuen artean. Kexa edo arazoa errepikatzen denean, berriz, Bizikidetza Mahaia jarriko da martxan, arazoari konponbidea denen artean bilatzeko, edo egokiak diren isun edo zigorrak ezartzeko. ■

Ordenantza herritarrei aurkezteko bi bilera:

- Urriaren 27an, lokalen jabeei zuzendutako bilera irekia egingo da, 19:30etan udaletxean.
- Urriaren 29an, lokalak erabiltzen dituzten gazteei eta inguruko bizilagunei zuzendutako bilera irekia egingo da, 19:30etan udaletxean.

ESKU PILOTA LAU T'ERDIKO TXAPELKETA

Olaizolak gaur ekingo dio txapelketari, Bengoetxearen aurka

«Aurkari gogorrenetakoa tokatu zait hasteko. Oinatz oso ongi moldatzen da distantzia honetan», azaldu zuen goizuetarrak pilota aukeraketan. Partida 17:00etan izanen da, Labriten.

AIMAR Olaizola gaur sartuko da Lau T'erdiko Txapelketan. Egungo txapeldunak, final laurdenetan ekingo dio txapelketari, Oinatz Bengoetxearen aurka. Arratsaldeko 17:00etan izanen da Iruñako Labriten.

Asteazkenean aukeratu zuten materiala eta goizuetarrak halaxe hitz egin zuen gaurko partidari begira: «Neurketa zaila izanen da. Aurkari gogorrenetakoa tokatu zait hasteko. Gaur egungo pilotaririk onenetakoa da distantzia honetan. Oso pilotari azkarra da eta asko defenditzen duena. Oso zaila izanen da irabaztea. Baina oso partida garrantzitsua da niretzat ere, eta irabaztera aterako naiz, dudarik gabe».

«Denak dira faborito»

Kazetarien galderei erantzunez, txapelketa honetan 7 txapela izanda ere, bere burua ez duela faboritotzat ikusten azaldu zuen: «Denak dira faborito niretzat. Edozeinek irabazi dezake. Distantzia honetan oso ongi moldatzen dira denak». Eta gaineratu



Aimar Olaizola eta Oinatz Bengoetxea asteazkenean, pilota aukeraketan.

zuen: «Zurea ematen ez baduzu, besteak erraz irabaziko dizu. Partidan erakutsi behar da. Eta nahiz eta ongi entrenatu, partida egunean ez bazaude ongi, ez dago deus egiteko».

«Konfiantzarekin nago»

Olaizola IIak hainbat lesio edo arazotxo izan ditu azken aldian, baina erabat erreku-peratuta dagoela azaldu zuen: «Gustora nago. Azken partiduetan ongi sentitu naiz, ez dut molestiarik nabaritu.

Konfiantzarekin nago eta uste dut txapelketa baterako hori dela garrantzitsuen».

Pilotekin arazorik ez

Labriten bertan elkartu ziren Olaizola II eta Bengoetxea VI gaurko materiala aukeratzeko. Biak gustora azaldu ziren aukeratutako pilotekin eta alde horretatik ez dela arazorik izanen azaldu zuen goizuetarrak.

Aukeratutako materiala: Olaizola IIak, 105,9-105,3 g. Eta Bengoetxea VIak, 105,6-104,5 g. II

ESKU PILOTA



Iker Salaberria, txapeldun

Nafarroako Txapelketa irabazi du. Gaur eta bihar partiduak izanen dituzte goizuetarrek.

IKER Salaberriak Nafarroako Txapelketa irabazi du, eskuz banaka, kadete mailan. Asteazkenean jokatu zuen finala Obe-renako Cordonen aurka: 18-7.

Goizuetarrek, irabazi

Aurreko asteburuan eta aste honetan goizuetarrek jokaturako partidu guztiak irabazi dituzte: Nafar Jokuetan, Aizkorbe-Apezetxeak 22-17 irabazi zieten Maia-Beteluri. Eta Salaberria-Mariezkurrena 22-8 nagusitu zitzaizkien Telletxea-Gascueri.

Aizkorbe eta Apezetxea, Errotxapeako semifinalean
Errotxapean, Aizkorbe-Apezetxeak 18-10 irabazi zieten

Oskoz-Yanizi eta asteazkenean, semifinala jokatu dute (18:00). Maia-Betelu izanen dituzte aurkari (Esteribar).

Partiduak Goizuetan, bihar

Gaur, Gartzaronen jokatu dute (16:00): Aizkorbe-Apezetxea/Orbegozo-Olden (Añorga); eta Salaberria-Mariezkurrena/Mugiro-Eskiroz (Burlata).

Bihar, Nafar Jokuetako bi partidu jokatu dira Goizuetan (12:00): alebin 3garren mailan, Joanes Apezetxea-Befiat Apezetxea/Zugarralde (Burlata); eta kadete 1go mailan, Aizkorbe-Apezetxea (Umore Ona) Salaberria-Mariezkurrena (Erreka). II

JUBILATUEN ELKARTEA

Memoria lantzeko tailerra, astelehenetan

Arratsaldeko 16:00etatik 17:30etara izaten da. Arkupeak elkarteak antolatua da. Lehendabiziko aldia da Goizuetan tailer bat egiten dela.

ASTELEHENERO, memoria lantzeko saioak hari dira jasotzen Goizuetako 12 jubilatuen Arkupeak elkarteak (Nafarroako jubilatuen elkarte) antolatua da. Urriaren 13an hasi ziren eta 12 saio izanen dituzte urtarilerako bitarte. Arratsaldeko 16:00etatik 17:30etara elkartzen dira jubilatuen etxean.

Isabel Etxeberria da Goizuetako delegatua eta tailerraren berri eman dio Kronikari: «Urte-tan aurrera goazela, memoria

ahaztu edo apartatu egiten dugu eta lantzen ez dugulako da. Tailer honetan, ariketa praktikoen bitartez, memoria landu egiten dugu: sudokuak egin, aurpegiak memorizatu... Oso ongi dago». Saioak, psikologo batek ematen ditu. Tailer honetan parte hartzeko, dagoeneko ez dago aukerarik, izena eman behar zen aurrez.

Ikastaro ugari

Arkupeak elkarteak, ikastaro

ugari antolatzen ditu: informatika, argazkigintza, frantsesa, pintura eta marrazketa, inausketa eta txertaketa, aktiba zaitez tailerra, sendabelarrak... Hitzaldi eta irteerak ere bai. Etxeberriak azaldu duenez, ordea, beti herri handiagoetan izaten dira: «Donezteben, Leitza, Elizondon... Oraingoan, berriz, taldetxo bat osatu zen eta herrian emateko aukera izanen zela esan ziguten. Hemendik aurrera ere, zenbait ikastarotan

talde koxkorra osatuz gero, aukera izanen dugu». Orain, informatika ikastaroan ere badabiltzala gaineratu du Etxeberriak, Leitza.

Udaberrian ere bai

Urritik maiatzera egingen diren ikastaroetan ezin da izena eman dagoeneko, baina udaberrian berriz paratuko dira martxan ikastaroak eta apuntatu nahi dutenek, urtarilaren 23ra arte izanen dute aukera.

Goizuetako jubilatuen, Sendavivan

Goizuetako jubilatuen elkarteak 11 urte beteko ditu abenduaren 18an. 105 bazkide inguru ditu egun. Garai batean 120-130 ere izan omen ziren. Felix Salaberria da elkartearen diruzaina eta Goizuetan ze antola-

tu ohi duten azaldu dio Kronikari: «Hilabeteetan bitan, txapelketa egiten dugu kartetan, Trukean. Urtean, behin, eskursioa ere egiten dugu. Aurten Sendavivan izan gara 35 bat lagun, eta lehengo urtean Hondarribiara joan ginen. Abenduan, berriz, luntxa egiten dugu, baina gehiagorik ez, laguntza gutxi baitugu».

Asteazkenean ere elkartzen dira jubilatuen etxean. Ostegun, ostiral, larunbat eta igandetan egoten da irekita 17:00etatik 21:00etara. 30 bat lagun elkartu ohi direla azaldu du Salaberriak. «Kartetan aritzen gara normalean; emakumeak trukean, eta gizonak musean», dio. Leku guztietan bezala, tarteka haserre batzuk izan arren, giro ona izaten dela azpimarratu du. II

■ EUSKARA MANKOMUNITATEA

Zer da zuretzat euskara?

Goizuetan eta Aranon euskararen erabileraren inguruko grabazioak egiten ari dira. Baita Leitza eta Areson ere. Herritarren mezuak jasotzen ari dira kontzientziazio eta sentiberatze lan bat egiteko.

NAFARROA Iparraldeko Euskara Mankomunitateak bultzatuta, Goizueta eta Aranon grabazio batzuk egiten ari dira euskararen erabileraren inguruan. Hainbat herritar elkarrizketatu dituzte eta beraien lekukotasunak eta mezuak jasotzen ari dira. Eskualde mailako ekimena da eta Leitza eta Areson ere gauza bera ari dira egiten. Helburua da, kontzientziazio eta sentiberatze lan bat egitea.

Arnasgune tailerretik sortua Alaitz Eskudero Mankomunitateko Lehendakariak eta Goizuetako kultur zinegotziak ekimena nondik sortu zen azaldu dio Kronikari: «Duela urtebete, Goizuetan Arnasguneen tailerra egin zen eta bertatik atera zen ideia. UEMAK antolatutako tailer honetan, Goizueta euskararen arnasgunea zela ikusi genuen. Ze esan nahi du arnasgunea izateak? Ba euskarak lasai hartzen duela arnas, hau da, erabilera

arrunteko hizkuntza dela bai kale bizitzan, bai auzoan, bai familian, bai lagunartean eta baita lan munduan ere».

Hala ere, ahulgune batzuk bazirela ikusi zuten: «Hiru multzotan bereizi ziren goizuetarrek erdarara eramaten dituzten ohiko egoera edo espazioak: Lagunarteko egoera informal jakin batzuk; administrazioarekin lotuta dauden egoerak; eta irakurketa. Hori horrela, herritarren mezuekin ikus-entzunezko bat sortzea pentsatu genuen. Aurretik, Orion ere egin omen zuten horrelako zerbait». Goizuetaz gain, beste hiru herrietan ere jarri zen martxan.

Naturaltasunez erantzutea Herritar desberdinak bildu dituzte eta kamera aurrean jarri, beraiek euskararekin duten harremana kontatzeko. Galderak beraien eguneroko ohituren ingurukoak izaten dira normalean: Ze hizkuntza erabiltzen duzu egunerokota-

sunean? Zer da zuretzat euskara? Merezi al du euskararen normalizazioaren alde egiten den lanak? ...

«Naturaltasunez hitz egitea eta herritarrek benetan pentsatzen dutena esatea bilatzen dugu eta inola ere ez, ongi gelditzea. Ondoren ikusi eta agian baten bat hausnarketa egitera bultzatuko du bideoak edo besterik gabe, etorkizunerako artxibo moduan baliagarri izanen da», azaldu dute Alaitz Eskudero eta Maider Ansa Aranoko euskara zinegotziak.

Grabaketa lanetan, Itsaso Lujanbio (kamera) eta Alaitz Eskudero (elkarrizketatzailea) ari dira Goizuetan, eta Aranon, Joxan Ruiz (kamera) eta Maider Ansa (elkarrizketatzailea). Grabaketak bukatzean, asmoa dute herri bakoitzak bere montajea prestatzea mezu esanguratsuene-kin. Jendaurrean aurkezteaz gain, sare sozialetan ere zabaldu nahi dute. ■

■ GOIZUETAKO AZARO KULTURALA

Euskal Herriko natura ikusgai, gaur zortzi

Ander Olaizolaren argazki emanaldia izanen da. Azaroak 1ean, 19:00etan, Ganbaran.

GOIZUETAN, Azaro Kulturala prestatzeko lanean ari dira burubelarri. Hurrengo larunbatean hasiko da (orduan argitaratuko du egitarau osoa Kronikak). Lehendabiziko ekintza gisa, bideo emanaldia antolatu dute. Ander Olaizolaren eskutik izanen da eta Euskal Herriko naturaren irudiak izanen dira ikusgai. Arratsaldeko 19:00etatik aurrera egonen da ikusgai, Ganbaran.

Ferian postua paratzeko, izen ematea

Urtero bezala, aurten ere Feri Egunak ez du hutsik eginen, Azaro Kulturalaren barruan. Azaroaren 29an izanen da eta Udalak jakinarazi du, ferian postua paratu nahi dutenentzat izena emateko epea irekita dagoela. Azaroaren 7ra arte eman daiteke izena. Horretarako, udaletxera jo behar da edo telefono hone-tara deitu: 948 514 006. ■

■ GOIZUETA - UDALA

Goizuetatik Alkasoaldeko bidea garbitzeko, auzolana

Auzolanerako deia egin dute azaroaren 8rako. Goizuetatik Alkasoaldera doan bidea garbituko dute. Herritarrei dei egiten diete desbrozadora edota beharrezko beste tresnak eramateko eta auzolanera animatzeko. 08:00etan da hitzordua, plazan. ■

■ GOIZUETA-ERREMONTA

Beste garaipen baten bila, Juanenearekin

Aritz Zubirik Galarretako jaialdian jokatu du gaur. Juanenearekin ariko da, lehengo larunbatean bezala, eta orduan bezala, beste garaipen bat lortzen saiatuko dira. Etxabe II eta Larrañaga izanen dituzte aurrez aurre. 16:00etan hasiko da jaialdia eta lehendabiziko partidua izanen da goizuetarrarena. Binakako Txapelketako partidak jokatu dira ondoren. ■

■ GOIZUETA-ARETO FUTBOLA

Etxeko babesa ez zen nahikoa izan

Umore Onak 2-6 galdu zuen lehengo ostiralean Idiazabalen aurka. Goizuetan jokatu zuten, baina etxekoen babesa ez zen nahikoa izan. Oihaneke sartu zituen bi golak. Atzo gauean, beriz, Legorretaren aurka jokatzekoak ziren, etxetik kanpo. Aurkari zuzenarekin neurtzekoak ziren, Legorretak hiru puntu bakarrik baitzituen eta irabaziz gero, puntutan berdintzeko aukera izanen zuten goizuetarrek. ■

■ ARTIKUTZA

Bixita gidatua, bihar

Ibilbide gidatua antolatu dute bihar Artikutzan. Artikutzako erreke-tako animalia, landare eta bitxikeriak azalduko dituzte. Eskaseko atezaindegitik abiatuko dira 09:15etan. Izena eman behar zen aurretik. ■

■ ARANO

Maria Juana Huizik, 100 urte

Urriaren 22an bete zituen urteak Maria Juana Huizi Leonet aranoarrak. Egun, Bartzelonan bizi da. Monja sartu zen eta gazterik utzi zuen herria.

MARIA Juana Huizi Leonet aranoarrak 100 urte bete berri ditu. Asteazkenean izan zen bere urtemuga, hain zuzen, urriaren 22an. Maria Juana gazte zela, monja sartu zen eta Katalunian bizi da orduz geroztik. Berga herriko konbentuan bizi izandu da. Gaur egun, Bartzelonako zaharren egoitza batean dago. Urtero bezala, senideak bixitan joango zaizkio, asteburu honetan. Bihar, gainera, omenaldi txiki bat eginen diote egoitzan bertan.

Gaixotasun baten ondorioz Maria Jesus Zugarramurdiren senarraren izeba da Maria Juana, eta Maria Jesusek, izebaren istorioa azaldu dio

Kronikari: «Berak kontatzen duenez, gerra garaia zen eta gaixotasun bat izan zuen. Kozkorren bat atera zitzaion izterrean, kadera aldean, eta operatu egin zuten. Infektatu egin zitzaion, ordea, eta oso gaizki zegoela Donostiako ospitalera eraman zuten. Medikuek ez omen zuen uste bizirik aterako zenik. Eta halaxe erabaki zuen, bizirik ateratzen bazen, monja sartuko zela. Izterra nonbait nahiko desfiguratua dauka eta pentsatu omen zuen: Zeinek nahiko nau ni horrela?».

Burua, argi

Orain dela bi urte egon zen azkenekoz Maria Jesus bera-

rekin eta burua oso argi zuela oroitzen du: «Bista aspalditik galdua dauka, baina memoria oso ona du. Aita hil zenekoa ere kontatu zigun argi argi. Berak 15 bat urte zituen eta ama alargun geratu zen 9 seme-alabekin. Anai zaharrena itsasoan aritzen zen lanean eta bera, amari laguntzen etxean. Mixeria gorrian bizi zirela esaten zuen. Ama ikutua geratu zela ere bai».

Aranotaz, ordea, ez omen da askorik akordutzen: «Etxeen izenak eta esaten dizkiot, baina ahaztua dauka dena. Euskara ere galdua du», dio Maria Jesusek. Azkenekoz, orain dela 25-26 urte egon zen Aranon, Maria Juana. ■

☎ TELEFONOAK •TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 943 55 52 77 (Astigarraga) •UDALTZAINGOA: 092 •DYA: 943 464622
•AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Arelzaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
•ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 (Hernani) 943 33 56 44 (Astigarraga) •JOKALARI / ALKOOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
✚ FARMAZIAK •Egunez: Tanco URNIETA Idiazabal, 39 •Gauz: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077 (Hernani)

EGURALDIA GAUR Goizean lainoak agertuko dira, baina ez du euririk egingo. Pixkanaka argitu egingo du, gainera. Temperatura, aldaketa haundirik ez. Min.11°/Max.23°
BIHAR Zeruan eguzkia izango da jaun eta jabe, eta temperatura epela izango da nagusi, hego-haizeari esker. Udaberriko giroa, nagusi. Min.12°/Max.24°
(euskalmet)



ANFIBIO ETA NARRASTIAK - 12. FITXA: **PELOPHYLAX PEREZI**
Ingela berdía / Ingela urekua / Iela

Ziraba proiektua da anfibioak eta narrastiak ardatz hartuta. Hernaniko hainbat elkarte elkarlanean aurrera daramakiten proiektua.

Ingela berdía, ur bazterretako kantari zalapartatsua

Kantaria eta saltarina, ingela berdiak koadrilan biltzeko joera du, eta noizbait kantuan sumatu dituenak ez du berehalakoan ahaztuko haien zalaparta edo «makakorro hotsa».

AZAROAN lotara joango da, eta oraintxe da ingela berdiak ikusteko azken sasoi. Ur bazterrean topatuko ditu hartara dihoanak, baina seguru asko ez du udara inguruan izan litekeen zalapartarik sumatuko, ernaltzeko garaia bukatua baitu anfibio txiki honek. Ur zalea da, eta Hernani osoan da ezaguna, erreka, errio edo putzu bazterretan egoten baita, eltxo edo elbien zai, sekulako akrobaziak egiteko gai den animalia arin hau. Uretan jartzen ditu arrautzak, eta handik jaioko dira txalburuak, astebete ingurura. Batez ere, Aiako Harria inguruan biltzen dira oraindik talde haundian, Malbazarren, Akola aldeko Putzuzar eta Askaxarren, edo Epeleko Zepadiko putzu egin berrian.

Erreka, errio edo putzu bazterretan egoten da, eltxo eta elbien zain. Sekulako akrobaziak egiteko gai da ingela berdía.

Ez da haundia, 6-8 cm ingurukoa, berde argi edo iluna izan liteke, eta sabel txurikoa. Saihetsetan bi zain lodi ditu, batetik besteraino. Bere lehengusu ingela gorriak bezala begi haundiak ditu, baina berdea txikiagoa da, eta kantaria, beste ez bezala.

Ibarluzen, 'Ingelatierra' Ez orain dela urte asko arte,

Ibarluzeko erriberetan ezaguna zen Ingelatierra izeneko lekua, orain Arraun elkarte eta Garbigunea dauden toki horretantxe. Horko lokatz, lezka eta belar artean sekulako ingela pilak biltzen ziren, eta ingela arrak kantari aritzen ziren, emeei, eta aldameneko arrei, esanaz: «hemen ni, pieza eder askoa!». Eta aldamenekoak erantzun: «kro! Bai ni ere!» eta «krokrorrrroorrr!» ehundaka ingela entzungo zituen parean pasatzen zenak.

Urumea bailaran ingela eta iela hitzak erabiltzen dira, eta gaur egun, baita euskara batu-ko igela ere. Ereñotzun ia denek ingela erabili izan dute, eta baita Osifñagan ere, edo Portun, edo Ergobia eta Astigarragan ere. Santa Barbara eta Jauregi aldean, eta Hernaniko beste



Igel berdía ez da haundia, 6-8 cm ingurukoa; berde argi edo iluna izan liteke.

hainbat lekutan iela esaten zaio, eta baita Arano eta Goizuetan ere.

Hernaniarrei entzuna:

Ba omen ziren bi leku Hernanin, bat Ingelatierra eta bestea Londres. Ingelatierrako

semea mikeleteek geratu, eta galdetu: «¿De donde es usted?» eta besteak: «De Ingelatierra» eta mikeleteak: «¿Y a donde va?» eta besteak: «A Londres». Eta epelak eman omen zizkionten, gizarajoari, adarra jotzen ari zitzaizkiolakoan. ■

IRAGARKI MERKEAK

Biologian lizentziatua behar da, fisiologiako klase partikularrak emateko. Deitu: 606 418 950

Hernaniko erdigunean pisua salgai. 2 gela, sala, sukaldia eta komuna. Patio irekira eta oso argitsua. Igogailua eta fatxada berria. Sartzeko moduan, amueblatua. Deitu: 630 227 630

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

LA HABANA-VARADERO Azaroaren 2an Madrildik hegaldia + 2 gau La Habana gosaria barne + 5 gau Varadero 714 ^o hotelan	850 ⁰⁰⁰ €
MALLORCA Azaroan Bilbotik hegaldia + 6 gau 4 ^o Hotelean pentzio erdian	343 ⁰⁰⁰ €
TUNEZ Azaroan Madrildik hegaldia + 7 gau 4 ^o Hotelean pentzio erdian	390 ⁰⁰⁰ €
TENERIFE Azaroan Bilbotik hegaldia + 7 gau 4 ^o hotelean pentzio erdian	397 ⁰⁰⁰ €
SALVADOR DE BAHIA Azaroan Madrildik hegaldia + 7 gau 4 ^o Hotelean gosaria barne	877 ⁰⁰⁰ €
LANZAROTE Azaroan Bilbotik hegaldia + 7 gau 3 ^o Hotelean pentzio erdian	395 ⁰⁰⁰ €
EGIPTO Azaroan Madrildik hegaldia + 4 gau Nilo pentzio erdian + 3 gau El Cairo 4 ^o gosaria barne	393 ⁰⁰⁰ €
PEKIN-SHANGHAI Urriarrila eta otsailean Bilbotik hegaldia + 5 gau 5 ^o Hotelean gosaria + bixitak barne	940 ⁰⁰⁰ €

ESTAMBUL Abenduaren 2an Irufatik hegaldia + 6 gau 3 ^o Hotelean gosaria barne	669 ⁰⁰⁰ €
LISBOA Abenduaren 3an Irufatik hegaldia + 4 gau 3 ^o Hotelean gosaria barne	499 ⁰⁰⁰ €
ERROMA Abenduaren 20an Bartzelonatik irekiera itsasontziz + 5 gau pentzio osoan	499 ⁰⁰⁰ €
TALDEAK (GUTXIENEZ 25 PERTSONA)	
DONEJAKUE BIDEA Astelehen 15tik 25era Hernanik autobusa + 6 gaueko zirkuitua 3 ^o /4 ^o hotelean pentzio osoan + gida + bixitak	562 ⁰⁰⁰ €

Aukera gehiago
www.bidaibila.com

HERNANI
BIDAIAK
Urtia, 6
943 33 00 49

JARRAITU: f t p